




Inazio Olarreaga 'Gerri'

Ameriketako Estatu Batuetan bizi den azpeitiarra

ARRANTXO BAT DAUKAN AZPEITIARRA



'Gerri'-k 40 urtetik gora daramatza Azpeititik kanpo bizitzen (22-26)

irratxo irratxo irratxo irratxo irratxo




irratxo

Oporretan
uztailaren 6tik 10ra

Jostailuak - Paperdenda Tel. 15 05 30 Sanjuandei auzuer

irratxo irratxo irratxo irratxo irratxo



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10



DUEN ORDUTEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKANTZEN DEN ARRETA BEREZIAGATI
DUEN KALITATEAGATIK

AZKOITIA
Ibai ondo. 16

AZPEITIA
Pablo VI. 20 behe

Azpeitian
behar al da
saihesbidea?
Hiru ikuspegi
(12-13)

Elkarrizketa.
Joseba
Albizu
txirrindularia
(18)



Iraurgi
Ikastetxea
osatuko dute
lau eskolek
(32-33)



Elkarrizketa.
Mikel
Garmendia
(42)

i

Azken udal hauteskundeetan EHk herrian %34 bildu zuen. EHren tokia Batasunak du orain, eta legetik at jarriko dute. Ba al liteke?

Iban Arregi / Nerea Uranga

AZPEITIKO HEREN BATEN PARADEROIA

Martxintxoren marrazkia, Egunkaria-n argitaratua ekainaren 15ean.



Alderdi Politikoen Legearen puntu nagusiak

'Demokraziako' legea

Espainiako Legebiltzarrak eta Senatuak onartu dute Alderdi Politikoen Legea. PPK eta PSOEk bultzatu dute, eta CIU eta CC ere alde azaldu dira. EAJ eta EA kontra. Batasuna ez dago erakunde haietan. Legea martxan da jada.

- Alderdiak legez kanpo jarriko dira "printzipio demokratikoak urratzen dituztenean edo askatasun erregimena suntsitu edo kalte egin edo sistema demokratikoa hautsi nahi dutenean".
- Larrizat jotzen dira jokabide hauek: "Oinarri-zko askatasun eta eskubideak urratzea, helburu

politikoak lortzeko indarkeria zilegiztatzea eta terroristei sostengu politikoa ematea, terroristei aurre egiten dietenei mehatxu egitea eta terrorismoarekin identifikatzen diren sinboloak edo mezuak erabiltzea".

- Alderdien Legea martxan denean, legearen atzeraezintasun printzipioa ezarriko da.
- Espainiako Estatuako Fiskaltzak eta Gobernuak eska dezakete alderdiak kanpo jartzeko, eta Parlamentuak Gobernuari eska diezaiotke trami-teak egiten hasteko.

1. Zer iritzi duzu Espainiako Alderdi Politikoen Lege berriaz?

» M. Jesus Aranburu

EAJko kidea



“Atzerapauso nabarmena”

- 1. “Atzerapausoa da. Aniztasun politikoa eraso egiten dio, eta oraindik sustraitu gabe dugun demokrazia gehiago ahultzen da. Ordenamendu juridiko-penala gaintuz, gizabanako delituak ez ezik, taldeak, alderdi politikoak dira balizko delitugile”.
- 2. “Denok joko politiko-demokratikoan sartuz, bakoitzak bere ideiak defendituz lor dezakegu gizarte anitza. Lege honekin are jende gehiago aurki daiteke legez kanpo; horrela ez dago konponbiderik”.

Iñaki Errazkin

Azpeitiko LABeko kidea



“Prozesuaren motorea zapaltzea da helburua”

- 1. “Euskal Herriak prozesu demokratikoa aurrera eramateko behar duen motorea zapaltzea da helburua, eta motore hori ezker abertzalea da; ondorioz, Batasuna”.
- 2. “Ondorio ikaragarriak ditu. Gure herrian indar handia den ezkertiar eta abertzaleen proiektua da Batasuna. Azken batean, azpeitiar denen aurkako eraso da, konponbide demokratiko baten aldeko jarrera nagusiari eraso egiten baitio”.

Xanet Esnaola

Azpeitiko Batasuneko kidea




“Milaka lagun klandestino”

- 1. “Euskal Herriak etorkizuna bakean eta askatasunean oinarritu ahal izatea eragotzi nahi da, mugimendu independentista eta Espainiako Estatuaren logikatik kanpo aurkitzen diren sektoreak kriminalizatuz”.
- 2. “Milaka lagun klandestinizatzea suposatuko luke. Egoerari orokorrean konponbidea bilatu behar diogu. Ilegalizazioari irtenbidea bilatuz baino gehiago, euskal herritar denen eskubide denak betetzeko hartu beharreko konpromisoak hartuz”.

Joxe Mari Aranbarri

ELAko idazkari nagusiaren albokoa



“Herritarren herena baztertuko litzateke”

- 1. “Balizko ilegalizazioa, sistema demokratikoa bere baitan dituen antolakuntza eta politika adierazpenen funtsezko eskubideen aurkako atentatu bat dela deritot”.
- 2. “Herritarren herena bat baztertuta geldituko litzateke, ordezkari politikorik gabe. Demokraziaren oinarriak kontutan izanik eta demokratikotzat jotzen den sistema kontuan hartuz, inondik inora onartezina da lege hau”.

Manuel Unanue

Azpeitiko EAKo kidea



“Zaildu eta txartu egingo litzateke herriko giroa”

- 1. “Herrigintzan aurrera joateko beharrezkoa da iritzi eta proiektu politiko guztiak errespetatzea, independentzia barne. Hau ilegalizazioarekin oztopatzen da, bizi dugun indarkeria, ETarena, aitzakia eta justifikazio bihurtuz”.
- 2. “Batasuna legez kanpo utziko balitz, zaildu eta txartu egingo litzateke herriko giroa. Elkarlana aurrera joateko beharrezkoa da hainbat biolentzia ekintza oztopaizale baztertzea”.

Maria Jesus Arregi

Azpeitiko Elkarriko kolaboratzailea



“Gatazkaren sutara egur gehiago botako da”

- 1. “Alde batek besteari aurka erabili nahi duen beste arma bat da, gatazkaren sutara botako den egur gehiago. Boterearen gehiegikeria da, beraiei botoek emandako indarra, beste batzuek horretarako duten eskubidearen aurka erabiltzea”.
- 2. “Uste dut inork ez dakiela. Horixe bera da legearen alde negatiboetako bat, arduragabekeria delako nora garamatzen ez dakigun neurriak hartzea”.

2. Batasunaren ilegalizazioak zer eragin izango luke Azpeitian?

J. Luis Zubizarreta

ELAko Gipuzkoako Metaleko arduraduna



“Zapalkuntza izugarria izango litzateke”

- **1.** “Zapalkuntza izugarria litzateke, kontutan izanik Batasuna horrenbesteko indarra duen alderdi politiko bat dela. Ideia batzuk ilegalizatzea litzateke. Francoren garaian ematen ziren”.
- **2.** “Ilegalizatzen bada, azkenean hauteskundeetan parte hartzea ukatuko zaio, eta horrek herriko eta Euskal Herriko organo desberdinetan parte hartzeko aukera kenduko dio. Neurri honi gizarteak eman behar dio erantzuna”.

Pello Odriozola

Azpeitiko LABeko abokatua



“Hautu politikoa ezabatu nahi da”

- **1.** “Gobernu ez demokratiko eta faxista baten beste adierazpenetako bat litzateke. Ez dute onartu nahi Euskal Herrirako eta herritarrontzako Batasunak plazaratzen dituen Konponbide Demokratikorako eta bakea lortzeko proposamenak”.
- **2.** “Azpeitiar askoren hautu politikoaren egikaritzea ezabatu nahia suposatuko luke, kontuan izanik ezker abertzaleak duen pisua gure herrian”.

Orkatzen egoera larria

● Orkatz Kultur Elkarteak kideak maiatzaren 2an egin ziren elkartearen egoera berriaren jabe. Bantexera joan eta kontua blokeatuta zeukatela konturatu ziren. Erdi kaleko 21.ean duten taberna ere “*prevención de embargo*” egoeran dute, Baltasar Garzon espainiar epailearen aginduz. Arrazoia, Garzonek “ETAren egitura-ko parte izatea” egozten diela. Elkar-tekideen esanetan, horrek funtzionatzeko ohiko era eragozten dio elkarte-ari berari: “Orkatzek, egoera honetan, normaltasun osoz ezin du funtzionatu, kontuak geldituta dituelako. Lolakaren kasuan, berriz, elkartearna denez, elkar-teak saldu nahiko balu ezingo luke”. Azken batean, Garzonek neurri horiek hartu izana Espainiako Estatuak Euskal Herriari egin-dako “eraso bat” gehiago dela diote Orkatzekoek. “Mugimendu independentista eta abertzalea oztopatzeko Espainiako Estatuak hartu duen erabaki politiko bat da. Bere logikatik kanpo gelditzen den oren inguruari eginiko eraso. Azken finean, Euskal Herriaren kontrako eraso bat da”.

Orkatz Kultur Elkartea sortu eta ireki zela hamargarren urtea laster bete-ko da, 1993ko San Joanetan ireki bai-tzen. Harrezkero, hamar urteotan, ha-maika ekitaldi egin dira elkartearen egoitzan. Taldekideen esanetan, urte-otan “fase ezberdinak” izan ditu Orkat-zek, eta aurrera begira “fase berri” bati ekin nahi diote: “Orkatz Kultur El-karteak jende ezkertiar eta abertzalea-ren topagune izatea nahi dugu. Eta urteetan izan duen ekitaldi txikien gu-ne izateko funtzio hori hobetu asmo dugu. Funtzio hori betearaztea Espai-niako Estatuak galarazi nahi badu ere, hori gainditu nahi dugu. Maila xu-me batean antolatuz, eta herrikoia izanez”.

Ramon Etxeberria

Azpeitiko EAJko mahai burua



“Sumin handiagoa sortuko du”

- **1.** “Sumin handiagoa sortuko du. Ba-tasunaren kontra doa lege hau, baina Euskal Herriko alderdi abertzale demokra-tikoei ere gerta dakiok. Oro har, euskal alderdi abertzale demokratikoen kontra dago. Eta denok dakigu Euskal Herriaren-tzako ondorio txarrak ekarriko dituela”.
- **2.** “Gauzak gehiago harrotuko ditu, era honetan elkarrengandik gehiago aldendu-ko gaitu. Geure artean sumin handiagoa sortuko du”.

Kike Zurutuza

Arabako Batasuneko mahaikidea



“Herri honen kontrako erasorik larriena da”

- **1.** “Urte askotan herri honen kontra (ez ezker abertzalearen kontra bakarrik) egin den erasorik larriena da”.
- **2.** “Ondorio larriak ekar ditzake azpeitia-rron eguneroko elkarbizitzan. Guztion aha-legina beharko da, euskaldunon hitza eta erabakia errespetatu dadin konpromiso zehatzak hartuz. Ala PSOEk GALen afe-ran egindakoaren antzeko gaitzespenare-kin konformatu nahi du norbaitek?”

amuko zubitik Mikel Arregi



AZPEITIKO FESTEN ARRAKASTA

Badatoz Saninazyuek, hainbat jenderen-tzat gure herriko festa arrakastatsuenak. Nire galdera hauxe da, ordea: zeri deitzen ote zaio arrakastatsua izatea? Klean jende asko ibiltzeari? Diru asko gastatzeari?

Azken egunotan klean dabilen zurrumuru baten arabera, arrakasta hori ziurtatzearen-edo, herriko agintarietako batzuk *Operación Triunfo*-ko norbait ekarri nahi omen dute.

Zurrumurruei garrantzi gehiegi ez ematearen aldeko banaiz ere, zer pentsatua eman dit horrek. Esaterako, beste herri, agintari eta abarren aurrean ondo gelditzeko noraino iristeko gai izan ote gaitezkeen pentsatu arazi dit.

Eta festen arrakastaren oinarria zein izan daitekeen, horri buruzko hausnarketak ere egin ditut.

Arrakasta, Azpeitiar orok festen antolaketan parte hartzeko aukera izatea litzateke. Jada antolatuta dagoenaren berri emateko deitu izan diren bilerek ez dute horretarako balio.

Azpeitiarron festak izango badira, hasieratik ziurtatu behar da herritarren partehartzea, antolaketatik hasita.

Arrakasta litzateke, baita ere, antolatzen diren ekitaldiek herritarren partehartzea bultzatzea. Izan ere, antolatzen diren gauza gehienetan kanpotik ekarritako artistak, abeslariak, zezenak dira protagonista. Herritarrak ikusle soil izatera mugatzen gara. Antolaketan ez ezik, festen eguneroko dinamikan herritarren partehartzea ziurtatzea oso garrantzitsua da. Sansebastianetan edo Santotomasetan, esaterako, herritarrak festaren parte garrantzitsu dira. Saninazyuek, berriz, herri izaerarik gabeko festak bihurtzen ari dira.

Eta arrakasta litzateke, baita ere, herriko festek, gure herriarentzat hain garrantzitsu diren euskal kulturaren eta euskararen aldeko jarrera aktiboa mantenduko balute.

Horretan guztian egon daiteke herriko festen arrakastaren oinarria. Eta nik behintzat, nahiago dut, *triumfo* baino, arrakasta.

azketako ude Kepa Susperregi



UZTAILAK KOLORE BEREZIA IZANGO DU

Aldizkari hau kaleratzerako igaroak izango ditugu San Juan eta San Pedro egunak, itzalita izango dira San Juan suak eta botako zuten dagoeneko Urrestillako plazan jartzen duten lizarra ere. Ekainarekin batera, agur esango genien eskoletan ikasturteari, kirol taldeetan txapelketa eta denboraldiari. Urteko opor garai nagusiaren atarian izango da hainbat langile.

Beste hainbeste gertatzen zaigu geuri ere. Amaitu da, dagoeneko, gure Parrokietan egin ohi dugun hainbat ekintza. Eta eguneroko lanei aurre eginez jarraitzen badugu ere, aurreko ostiralez, agurtu genuen elizbarruti mailan lan urtea.

Hala ere, aurten, San Inazioak ospatu bitarteko hilabete honek kolore berezia du gure artean. Hilabete honetan, guretzat ohizkoak diren eginkizun eta ospakizunetaz gain, azken

hilabeteotan gure artean izan dugun Iñigo Mitxelena gaztea apaiztuko baita. Maddalena egunaren bezperan, uztailaren 21.ean, hain zuzen ere. Bera izango da Gipuzkoan aurten apaiztuko diren bi gazteetako bat.

Santiago egunez ospatuko du bere lehen Eukaristia gure artean. Eta datorren udazketik aurrera lankide eta bidelagun izango dugu gure artean. Apaiztu aurreko diakonutza ospatzean, Gotzainaren ahotan entzundako hitzetan jasotako eginkizuna: "Har ezazu Jesusen Ebanjelioa. Irakur ezazu. Irakurtzen duzuna erakutsi, eta erakusten duzuna bizi", betetzen, hezur mamitzen saiatu beharko du.

Idatzitxoa entregatzeko ordua ere heldu da. Gertu izango dira herriko festak aldizkaria kaleratzen denean. Bada, besterik ez irakurle, festa egunak eta udara gozatzeko aukera izan dezazula.

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

NESKA HAREN AZKENALDIKO MINTZAIRA

Agian, nahita, baina besterik gabe. Agian, nahi gabe, oharkabean. Agian, berak sorturiko ohituragatik. Agian, hantustekeriagatik. Auskalo zergatik. Kontua da neska azpeitiar hark beti espainolez egiten zuela Azpeitian; espainolez lagunekin, mutilarekin, gurasoekin, ahizparekin, tabernan... Agian, ez zen ilogikoa, baina bai ezohikoa.

Orain jakin da gurean lau urtean %3 egin duela gora euskararen kaleko erabilerrak. Neska hark badu zeri-kusirik igoera horretan, orain ez baitu espainolez egiten, euskaraz baizik; izan ere, neska hura orain dela hiru urtetik ama da, eta lotsatu egingo zen bere seme-ari espainolez egiten. Logikoa.

Eta frogatu da: ohitura, nahi bada, egun batetik bestera alda daiteke.

bota bertsue

J.L. Gorrotxategi

UDA

Batzuk dijoaz hondartzara ta beste batzuek mendira sortaldetik an azaltzerako eguzkiaren distira urte osoa pasa ondoren noiz iritsiko begira udarak ditun alderdi onak holaxe eskertzen dira.

Baina lanbroa ere sarritan ta zerua nahiko ilun eguzkiaren printzarik ere ez dugu aurkitzen inun tarteka berriz bero galantak kiskaltzen gaitu edonun oso laburra izaten data aprobetxatu dezagun



NOLA AZPÉTIKO HIRI ZINTZO TA LEIALIEN
KOTAIEN BER HAUNDIYE DAON, BAÑO HAINBESTE
ZARATA TA ATASKOK DEKENTE MOLESTATZEUNEZ...
NIK "C" ERDUE PROFESATZET. LOIOLAKO BASILIKIE
IKUTUBE UTEI TA BESTE DANA ASFALTAU. XOXOTE ONDO
TXIKIU EZKEO MASIE ITEKO HARRI MORDUE ATEAKO
GENUKE DEBALDE. JENDIK LUR AZPIYEN BIZI BERIG
LUKE, BAÑO BEHINTZET TXOFERTZEKO
KURBA GUTXIYOKIN. EUROPAI BEIRE DANA
AZKARRO JUNGO LITZEKE.
Galdetarik...?



JOSE DE ARTETXE.

Behin orrialde honetan bertan herritar batek Jose de Artetxe kaleko auto ilareki buruz eginiko keza jaso genuen. Orain udaltzainak gunea kontrolatzen hasi dira. Baina badute zer hobetzeko.



ASTOTEGIA.

Foru Ibilbidean, astotegiaren eta Hartzubia garagardotegiaren artean, euri zaparrada ari badu eta putzuak sortzen badira, arrisku galanta auto bat albotik pasatu eta busti-busti eginda gelditzeko.



LIBURUAK.

Uztailean herriko hiru taldek hiru liburu aterako dituzte. Gauregungutxi irakurtzen omen da. Herriko eta herriko taldeen berri ematen duten liburu hauek irakurtzera animatuko ote dute herritarra?

gutunak

Eskerrik asko grebari laguntza emateagatik

Lerro hauen bitartez, Euskal Herrian euskal sindikalismoak Aznarren Gobernuko giza eta lan eskubideen murrizketaren aurka deituriko greba orokorra sostengatu zenutenoi, gure esker ona azaldu nahi dizuegu.

Greba Orokorraren jarraipenari buruz ELAK egiten duen balorapena zera da: Euskal Herriko langile gehiengoak jarraitu dutela. Badakigu jarraipena ez dela berdina izan ez sektore guztietan, ez herrialde edota eskualde guztietan, baina orokorrean erantzuna —nahiz eta estatuko komunikabideak beste gauza bat esan—, sekulakoa izan da.

Jarraipena ikusita, berriz ere euskal sindikalismoak bere heldutasuna erakutsi du, batik bat ELAK. Gizarte eta lan arloetako politikak mahaigaineratzean, Estatu Espainoleko gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak gero eta gehiago hartu beharko du kon-

tuan indar sindikal hau. Azpimarratzekoa da baita ere, nola gero eta argiago gelditzen den agirian ekonomi eta giza arloko politika propioak eratzeko Euskal Herriarentzat Lan Harremanetarako Esparru propioa lortzea guztiz beharrezkoa dela. Langileak babestuko dituen politikak: kolokako enpleguak sortzen duten gehiegikeriengatik, lehen lanetan gazteek jasaten dituzten neurrigabekeriengatik, bidegabeko kaleratzeengatik... Gero eta baztertuago dauden langabetuek eta pentsionistek babestuko duten politikak.

Espanian indarrean dagoen sindikalismo laguntzaile eta itunzaleen aurka Euskal Herrian bidea eredu aldarrikagarriagoa dela erakutsi dugu.

Azkenik, gure partaidetzarekin gehiengo sindikala baztertzea ezinezkoa dela ikusi da, ez estatu mailako sindikatuengatik, ez eta euskal gobernuengatik ez eta estatuko gobernuengatik.

Guzti hau ez da izan beste urrats bat besterik erakusteko herri honentzako demokrazia,

paperetan eta hitz loratuen gainetik, egunero erakutsi behar dela aditzen eta elkarrizketa-tzen gizartearen ordezkariekin, are gehiago nagusiekin, edonondik datorren eta edozeinen pentsamentu bakarra onartzen ez dutenen baztarkerian amildu gabe.

Guztion laguntza eta partaidetzarekin euskal gizarte sozialagoa, solidarioagoa lortuko dugu. Politika eta giza arlo guztietan, kalearen ahotsa eta eskaerak benetan gogoan hartuko dituen gizartea.

ELA- Urola Kosta

Lagun Artea eskuderiaren oharra

Aurtengo Azpeitiako Rallyaren —uztailaren 20-21ean ospatuko dena— prestaketetan murgilduta gaudenean, bi gairen inguruan gogoeta egin dugu. Alde batetik, auto lasterketaren beraren segurtasunaz; eta beste-

tik, zaletuen talde batek azaldu izan duen jarreraz.

Hainbat hausnarketen ondoren, Lagun Artea Eskuderiak hartu duen erabakia honokoa izan da: 2002an egingo den auto lasterketa ez da Urrakitik igaroko. Aurreko lasterketan, Ikasberrik antolatutako Rally sprintean, zaletu batzuen jokabide txarragatik eta hauek lasterketarekiko azaldutako errespetu falta dela medio, erabaki hau hartzera behartuak izan gara. Erabaki honen ondorioak jasango dituztenak auto gidariak beraiek izango dira, jakina baita Urraki oso leku aproposa izan dela beti horrelako lasterketak egiteko.

Hartutako erabakien ondorioz, auto lasterketarako beste ibilbide bat lantzen ari gara. Gainera, 2002ko edizioak ezusteko ugari izango ditu. Espero dugu hartutako erabakia zerbaitetarako baliogarri izatea, eta benetako zaletuei zera eskatzen diegu: horrelako jarren aurrean zerbait egin dezatela, Katalunian bezala.

Lagun Artea Eskuderia

akullue



Leire Ostolaza

AZPEITIA,
AUTOEN
HERRIA

Kaixo lagunok! Esan beharrik ez dago gure herria autoz gainezka dagoela, herri barruan ibiltzeko nahiz kanpora joateko, nonbait, ez dugu irtenbide hoberik aurkitzen.

Batzuk auto pilaketa hau dela eta bariantearen beharra azpimarratzen dute, baina argi dagoena da laster ez dela egongo lekurik den-dena errepede eginda ere.

Lasaiago biziko bagina ez genuke batera eta bestera eroen moduan ibili beharrik izango. Hala ere, argi dagoena da zerbait aldatu beharra dagoela, 15.000 lagun eta 10.000 auto ezin baitira sartu herri berean. Ohiturak aldatzeko premia latza dugu baina ez da hain erraza autoek lilura sortzen duten herri honetan. Oinez luze eta nekagarri gerta daiteke herriko leku bat baino gehiagotara joan behar izatea, eta bizikletan? Europako herri batzutan ikus daitekenez bizikleta da herri barruan mugitzeko ibilgailurik egokiena, nor ausartzen da ordea, Landetako errotondan edo Hartzubikoan auto eta kamioi azkarren artean bizikletaz sartzen? Non dago bidegorria? Denok daukagu hein batean gertatzen denaren errua, baina erraztasunik eskaintzen al da autoa uzteko? Irtenbidea bakoitzaren kontzientzian dago.

inkestie

Sei hilabete eta gero,
zer moduz moldatzen
zara euroarekin?

zer diyo?

GAZTEOK NOR GAREN

Askotan entzun diet gurasoei eta aurreko belaunaldikoei: "Zuek gazteok, dena eskura daukazue eta beti kexatzen zarete. Gure garaian bizi izan bazineten...". Pentsatzen jarrita uste dut arrazoi dezente duela esaldi horrek. Neuk behinik behin eskura izan dut dena.

Jendea nola bizi garen begira jarrita, bada arrazoirik kontu horretan. Eguneroko presa, betebeharrak eta kezkek inguruko edertasunaz ohar-tzea eta gozatzea galarazten digute, eta egin ditzakegun mila gauza mugatu.

Hori horrela da, baina gertatzen da alderantzizkoa ere: denbora dugunean, asper-asper eginda telebistari so edo ganora gabe egotea. Horrelaxe egoten gara une idealen eta gozoen zain. Aukera eta denbora ditugunean beste nonbaitera joaten zaigu burua, edo ez ditugu dauzkagun baliabideak aprobetxatzen.

Baliabideak, bai horixe. Gizakioi helburuetara iristeko balio diguten bideak. Baliatzeko erabiltzen dugun guzti hori. Eskuekin ere baliu gaitzke, ezker-eskuin. Behatzak; hankak, zutik eta tinko egoteko gai gara eta mugitzeko ere bai: kilometroak egin ditzakegu oinez mendian, basoan, paseoan. Zentzunak ditugu; ikusmena, entzumena, ukimena, usaimena. Galdutakoan edo min hartutakoan soilik ohartu behar al gara hauen garrantziaz?

Azkenean, uste dut ez garelako ezertaz ohar-tzen. Inkonszientzian murgilduta, ohitura eta eginbeharren menpe jartzen gara eta gure zerbizura izan behar genukeen oro gure nagusi bilakatzen dugu. Garrantzia garenari baino daukagunari ematen diogu.

Bizitza, orduan, zirkuitu itxi eta biribila bilak-tzen da eta bertan hasten gara biraka. Sarritan

Miren Artetxe

(Iratxo jostailu eta paper denda)

"Gu dendariok moldatzen gara euroarekin. Baina, jendea oraindik ez da ohitu, asko kostatzen zaio, euroa zuzenean pezetekin lotzen du. Bezeroak erraz ordaintzen du, baina gero askotan ez daki zenbat ordaindu duen".

Eli Zinkunegi

(Merat estetika denda)

**"Ondo moldatzen gara euroarekin.**

Jendeak, ordea, oraindik pezetatan pentsa-

nekatzen gara, gero eta buelta gehiago are eta akituago. Zerbait desberdina egin nahian, justu kontrapunturantz jotzen dugu desfasatuz.

Bestela materiala eta dirua desiratzen dugu, gure zirkuitu polita atonduz ahalik eta gehien —ez dut esan nahi materiala eta dirua premiazkoak ez direnik—. Baina hainbeste buelta eman ostean hain ezagun bihurtzen da zirkuitu hori, nahi adina dekoratu arren... ongi baino hobeto ezagutzen dugu eta lehengo bera da azkenean. Beste zerbait nahi genuke. Baina, nola eta zer?

Zeren beldurra... —urteak aurrera doazela are eta gehiago— duguna arriskatzeko eta aldatzeko... Zerbait desberdina egiteko gaitasuna badugula pentsatzea ere?

Gure gaitasunez ohar-tzeko, konsziente egin eta ulertzen hasteko, agian, geure buruari barrurantz begiratu beharko diogu: Nor garen, nola gauden... ditugun akatsak onartuz —horixe zaila!—. Eta Klik! batekin, kuriositatearen txispapiztu. Horrela, automatismoak barruan sortutako hutsunea galderez betetzen hasi gaitzke. Eta galderei erantzunak bilatzen saiatu pixkanaka, eta obserbatzen hasi. Eta kostatzen bada ere, uste dut merezi duela laguntza eskatzea. Saiatuz gero laguntza jasotzen baita, eta erantzunak iristen dira.

Hauxe da nire iritzia. Eskertu nahi nuke Yogan dabilen jendearen lana eta Xabier irakaslearena. Baita, noski, familia eta inguruko lagun babesa ere. Apur bat gehiago Nor naizen ezagutzen eta nahi dudanari zentzu gehiago ematen lagundu didatelako.

Josu Salegi

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTAK

1. GALDERA: Zenbat liburu irakurri dituzu euskaraz aurten?

- Batere ez: %52
- Batedo bi: %22
- Hiru edo lau: %14
- Lau edo bost: %4
- Bost edo gehiago: %8

2. WEBEAN DAGOEN GALDERA: Nora joaten zara hondartzara?

Estixu Aginagalde

(Babesa moda)

“Gu dendan euroarekin moldatzen gara. Baina jendea ez da ohitu oraindik, batzutan ez daki zer ordaintzen duen. Dendari bezala ondo moldatzen naiz, baina gure kalkuloak pezetatan egiten ditugu oro har”.

Nekane Gorrotxategi

(Nekane janariak)

“Oraingoz behintzat ondo. Hasiera batean larri samar ibili nintzen, baina gero nahiko ondo moldatu naiz. Nik uste, dirua badago

ez dagoela arazorik. Jendeak oraindik pezetatan pentsatzen du baina ohitzen ari da pixkanaka-pixkanaka”.

Sonia Carbajo

(Tejanos denda)



“Jendea oraindik ez da ohitu eurotan bakarrik funtzionatzera. Normalean, prezioa eurotan jarrita dagoenean, galdetu egiten du pezetatan zenbat den. Zenbaki borobiletara egin gara, baina bestelakotan galdetu egiten da. Dena den, gu nahiko ondo ohitu gara eurora”.

etzen du batik bat. Batzuk, pezetatan zenbat den-eta oraindik galdetu ohi dute”.

Igone Guridi

(Xaberi okindegia)



“Euroarekin hasi eta hasierako bi egun gaizki pasatu nituen. Baina jada ondo moldatzen naiz euroarekin. Oraindik jendea ez da ohitu, pezetatan pentsatzen dute batik bat; dena den, eurotan pentsatzen duen jendea ere badago. Jendearen esana da, euroa pezeta baino azkarrago gastatzen dela”.

postako eztabaidie

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko ‘eztabaidan’ atalean Espainiako Lan Erreformaz eta greba orokorrerako deiaz aritu dira kide batzuk. Hona hemen gutun horietako sorta bat:

Lan erreformaren kontra

Lan erreformaren kontra nago, ez hainbeste bere edukiagatik, PPK herriaren ideiei kasu ez egiteagatik baizik. Neuk egin eta neuk jan. Ez kasu eta ez entzun ere. Bestalde, uste dut, sindikatuek bat egin behar zutela. Abertzaleak eta ez abertzaleak? Langile kontzeptua unibertsala da, edo ez?

ZOGZ

Espainolek erabakia

Eme-k dio erabaki gune espainola gaintzearena, baina, hemen, euskal gunean greba noiz deitu eta egin Espainiako sindikatuek erabaki dute. Zer-gatik egon haiek noiz deituko zain, gero, egun bat lehenago deitzeko? Sindikatuen goi mailako konpondu ezinak enpresetako langileen artera pasatu dira. Eta hori ez zait zuzen negia iruditzen.

Sañue

Zaila greba bateratua

Langile kontzeptua unibertsala izango da, baina oso ezderdinak dira greba guztiak; baita oraingo greba honek (Lan Erreformaren aurkakoak) Espainian eta Euskal Herrian dituen karakterizazioak ere. Espainolak, kasu honetan, lan erreformaren dekretu horren aurka azaldu dira, baina dekretu horiek egiten dituztenekin bat datozen. Eta kasu askotan, gainera, eurek parte hartu ohi dute negoziazio horietan. Sindikatu abertzaleek, berriz, erabaki gune espainola gaintzea izan behar dute helburua. Horrelako ezberdintasunekin zaila iruditzen zait greba bateratu bat. Eta bestela, langile kontzeptua unibertsala bada, zergatik frantsesak edo ingelesak... euren erara dabilta, eta espainolak beraienara?

Eme

Greba egun berean

Konbokatoria bateratua ez zuten egin behar, baina greba egun berean egin beharko litzateke. Pultsoak ez du sindikatuen artean behar, Aznarren kontra baizik.

Ni

Errealitatearen islada

Noski greba Aznarren kontra dela, baina CCOO eta UGT PPren kolaboratzaile zuzenak dira. 19ko eta 20ko deialdiak errealitate baten islada dira. Langileok badakigu zer sindikalismo egiten duten Espainolek.

Ion

“Eguneroko presa, betebeharrak eta kezkek inguruko edertasunaz ohartzeko eta gozatzeko galarazten digute”

“Zerbait desberdina egin nahian, justu kontrapunturantz jotzen dugu desfasatuz”

“Gaitasunez ohartzeko, konziente egin eta ulertzen hasteko, barrurantz begiratu behar dugu”

hausnartzen

GAIA: 'Etxebizitzak Azpeitian'. Etxebizitza eskubide izanik, bermatua al dago? babes ofizialekorik behar al da? Etxebizitza hutsekin zer egin? Alokatzeko aukeraz zer?...

Oharra: hurrengo zenbakian ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

ETXEBIZITZA MAILEGUA ESKATZEKO ORDUAN ONGI INFORMATZEA DA GARRANTZITSUENA

Etxebizitza bat erosteko mailegua eskatzearen prozesua bezeroa informazio esker etortzen den unean hasten da. Guk aurreneko bezeroari galdetzen dioguna, etxebizitzaren saltzailearekin tratua eginda dagoen da. Etxebizitzaren prezioa eta bezeroak eskatu nahi duen mailegua dakigunean, errazagoa da informazioa ematea. Guk emango genukeen maileguaren kantitatea finkatu aurretik, etxearen tasazioa jakin behar dugu. Kasu horretan, banketxeak tasatzaileari tasatzeko eskatzen diogu. Orduan tratuan hasten gara bezeroarekin. Hamar miloi beharko balitu bezeroak, eta zortzian tasatzen bada erosi nahiko lukeen etxebizitza, ezinean legoke. Baina, hori orokorrean ez da gertatzen. Ordea, etxearen kostuarekin badator bezeroa eta aurreratuta ez balu dirurik, kostuaren %100a eskatzea ere ez da ohikoa, baina gertatzen da. Orokorrean, denak diru bat aurreratuta edota gurasoak lagundu diotelako zerbait edukitzen dute. %80a arte etxeak berak bermatzen du mailegua, baina %80tik gora bada, maileguari etxearen bermea eta abal bat jartzen zaio. Abalak maileguaren %80tik gorakoa estali ohi du. Mailegua etxebizitzaren tasazioaren %80an sartzen denean, abala desagertu egiten da.

Hurrengo pausoa, bezeroarekin negoziatzen hastea litzateke. Prezioa ere ez baita izaten guztientzat berdina. Kutxako bezero dena kontuan hartzen da, azken finean mailegu bat ematerakoan guk dirua jartzen baitugu. Negoziazioan hainbat kontu daude tarteko: bezero ona bada edo aukerak baldin badauzka bezero ona izateko, edota gurasoak bezero onak badira. Bezeroak berak zer eskaintzen duen ere kontuan izaten da: etxearen segurua Kutxan egitea, edota nomina beste banketxe batera bideratua eduki eta hona aldatzea. Horiek denek jeitsi egiten dute prezioa. Banketxea saiatu behar da prezioan bakarrik ez gelditzen. Prezioaren eskean bakarrik badator, prezio estandar bat ematen zaio eta horretan gelditzen da. Eta %1 edo %0,75 gutxiagoko aldea ateratzeko aukera dago. Dena negoziazio bat da, nik zer ematen dizut, nik horrenbeste eskainiko dizut.

Banketxearentzat, etxebizitza berria edo zaharra erosi berdin da mailegua emateko orduan, mailegua berdina da. Aldea etxebizitza erostera doanarentzat izan daiteke. Etxebizitza erosten duena 35 urtetik beherakoa bada, 120 metro karratu baino gutxiago baldin baditu etxeak, Gipuzkoan ez baldin badauka beste etxebizitzarik bere izenean, edota azkenengo bi urteetan ez baldin badu erosi etxebizitzarik, salerosketa egiten denean, Ondareen Gaineko Zerga %6a izan beharrean %3ra jaisten da eta maileguan ez du zerga ordainduko. Etxebizitza berriaren kasuan BEZ-a ordaindu behar da.

Jende gazteak maileguan sartzeko beldurra dauka, baina, beldurra ez da izan behar, pixkat arduraduna izan behar da. Hemen ez da kentzen etxerik, denak ordaindu egiten dira, batzuk estua-

go eta beste batzuk lasaiago, baina denak ordaintzen dira. Etxebizitza mailegua eskatu eta zailenak lehenengo bi urteak izaten dira. Baina, lehen bi urteak pasatu ondoren soldatak igo egiten dira, eta mailegua ordaintzeko kantitatea beti berdina da edo berdintsua da. Gogoan dut, orain dela 25 urte inguru, maileguak 12 urterakoak, zazpi urtean %75a baino gehiago ordaintzen ziren. Gaur egun, gehienek 12-14 urtean mailegua ordainduta izaten dute. Jendeak aurreratu egiten du.

Gaur egun bikote bat, etxebizitza erostera doanean —bikoteetan pentsatzen dugu, kasu gehienetan hala ematen baita— biak lanean ari dira. Bi soldata etxe batean sartzen direnean ez luke arazorik egon behar mailegua ordaintzeko. Banketxeak etxebizitza erosteko mailegua emateko orduan soldata oso garrantzitsua da, handik sortzen baita diru guztia hau edota bestea ordaintzeko. Nomina lotu egiten da maileguari, nomina ere ziurra eskatzen dugu mailegu bat emateko orduan.

INFORMAZIOAREN GARRANTZIA. Etxebizitza maileguaren inguruan kontsulta egitera datorrena, ikusten da beste banketxeetan ere kontsulta eginda etortzen dela. Kasu horretan, Kutxan ahalik eta informazio gehien ematen saiatzen gara; informazioa ematea ez da, ordea, maileguaren interesa ematea bakarrik. Joku asko dago, eta dena begiratu behar da. Lehenengo batean ez diot prezioa emango, lehenengo informatu eta negoziatu egin behar da. Prezioa bakarrik ez da kontua, eskaintzen den zerbitzuak berak ere balore bat du; eta mailegua eskatzeko garaian dena mahai gainean jarri behar da. Azpeitian jendea asko informatzen da, banketxe batera eta bestera jendea asko ibiltzen da. Batzuek gehiegi ere ibiltzen dira eta batzutan ona izan daiteke baina beste kasu batzuetan txarra ere bai.

MAILEGUAREN IRAUPENA. Gaur egun maileguaren gehien-go iraupena 30 urtekoa da. Nik mailegu eske datozenei gehien-go iraupena eskatzea gomendatu ohi diet. Gero norberaren gain izaten baita aurreratzea. Mailegu bat eskatzen denean ahalik eta obligazio txikiena hartu behar da. Zenbat eta luzeago izan iraupena, obligazio txikiagoa hartzen duzu. Obligazio handia hartu eta jokurik ez edukitzeak zenbait unetan itolarrrian izatea suposatuko baitezake. Berez, ez baita gehiago ordaindu behar iraupena luzeagoa delako; hori bai, egonez gero 30 urtean hilean hilekoa ordaintzen, batere aurreratu gabe, orduan bai aterako litzatekeela diru gehiago ordaindu beharra. Baina, oro har, jendeak aurreratu egiten du. Eta aurreratzeko aukera izateko hileroko maileguaren kuota ahalik eta txikiena jartzen saiatu behar da.

Azkenean hipoteka-mailegua negoziazioa eta aholkularitza da. Informazioa oso garrantzitsua da, pertsona batek konforme geldi-

“ Informazioa ematea ez da, maileguaren interesa ematea bakarrik. Joku asko dago mailegua egiterako orduan, eta dena begiratu behar da”

Agustin Zubimendi

“ Etxe hutsak merkaturatzeko eta dagoen eskaera asetzeko udal politika baten aldekoa izan da Batasuna”

Aitor Unanue



tu behar baitu sinatzen duen horrekin. Banketxearen aldetik begirata, berriz, hurrengo batean ere zerbait behar baldin badu lasai etorriko baita berriro. Etxe bat erostea, agian, bizitza guztian behin bakarrik egingo da, beraz, gauzak lasai hartu behar dira eta ondo informatu behar da horretarako.

KONTU BEREZIAK. Etxebizitza erosi aurretik, aurreikuspen bat egin eta horretarako diru bat aurreratzeko aukera ematen duten kontu bereziak ere badaude. Etxebizitza kontua esaterako, hau irekitzen denean ez da izaten unean bertan etxebizitza erosteko asmoa, aurreikuspen bat da. Etxebizitza kontua ireki eta bost urteren buruan erosi beharra dago etxebizitza. Bost urtean, urtero %15a desgrabatzen da, eta bost urteren buruan etxebizitzarik erosi ez bada desgrabatutako dirua itzuli egin behar da. Etxebizitza kontuak duen ona, etekin handia ateratzen dela da. Kutzak kontu horri urteroko dirua edo epeka jartzen dena bezainbesteko ordaintzen dio kontu horri. Guztira, irabazia %17-18ra igotzen da. Gero, desgrabatzen den heinean dirua aurreratu egiten da. Kontu hau etxebizitza erosten den unean isten da.

Agustin Zubimendi (Kutxako gestorea)

BATASUNAK, AZPEITIKO ETXEBIZITZEN INGURUAN

Alderdi honetatik Batasunak garbi du etxebizitza herritar guztien eskubidea dela, eta hori bermatzea dagokiola Udalari. Alegia, inor ezin dela kale gorrian utzi gaur egun gertatzen ari den bezala. Bestalde, Azpeitian 1.478 etxe huts ditugu, %25a, eta hau benetako arazoa da herriaretat. Etxe hutsak merkaturatzeko eta dagoen eskaera asetzeko udal politika baten aldekoa izan da Batasuna. Betiere, egun herriak duen karga urbanistikoa hazi gabe, egungoaren laurdena hutsik baitugu.

Gaur egun Azpeitian etxebizitzaren inguruan ditugun arazoak honako puntuetan laburbildu ditzakegu:

- Gizarteko sektorerik apalenean, batik bat gazteak, etxebizitza eskuratzeko duten ezintasuna. Edo horretarako leporainoko zorretan sartu beharra.
- Etxebizitzaren inguruko espekulazioa, prezioek izan duten gorakada eta ondorioz, etxebizitza gehiegi eraikitzea. Azken finean, herriari ezarri zaion zama urbanistikoa, urteoro aurrekontuetan kopuru garrantzitsua kostatzen zaiola da.
- Alde zaharreko etxe hutsen kopuruak eta honen urbanizaketaren utzikeriak gainbehera nabaria eragin du bertan.

Azken hamarkadan Udalak babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea behartzen duen legea ez du behin ere bete Azpeitian. Zoru urbanoan %20ko kopuruan eta urbanizagarrian %65an babes ofizialeko etxeak izatera behartzen du legeak, gutxienez.

BATASUNAREN POLITIKA. Batasunaren udal etxebizitza politika honako puntuetan laburbiltzen du:

- Eraiki beharreko etxebizitza berrietan, etxegileei legeak ezartzen dituen gutxiengoak betearaztea babes ofizialeko dagokienez.
- Etxebizitza beharra zehazteko galdeketa edo behar dutenen zentsoa edo errolda irekitzea.
- Etxe hutsen errolda, jabegoa eta egoeraren zehaztapenarekin.
- Etxe hutsak merkaturatzeko laguntzak eman eta bitartekari lana egingo luke Udalak, alokairua babestuz eta bultzatuz.
- Udal lurretan babes ofizialeko etxeak eraikitzea, betiere aurreko neurriek dagoen eskaera asetzeko gai ez diren neurrian, eta egun urbanizaturik dauden zoruuetan.
- Alde zaharrerako biziberritze plana, eta egungo auzoen urbanizaketaren mantenua.

Baina etxebizitzaren inguruko arazoek, geure herrian ditugun beste hainbat arloetako arazoek bezalaxe, badaukate konponbiderik, jakina. Eta Udalak asko egin dezake arazo hauen aurrean. Baina, interes pribatuen menpe eta berauei begira soilik dagoen gaur egungo EAJren eta EAren udal gobernuak ezer gutxi egin izan du, arazoak areagotzea besterik.

Aitor Unanue (Batasuneko zinegotzia)

BAI

Erkaxok dio...

Erkaxok onartzen du herrian trafiko arazoa dagoela, eta horrek zenbait ezbehar sortzen dituela: "Zarata, aire kutsadura, auto pilaketa... Baina auto pilaketa ez da larria, une jakin eta labur batzuetan dagoelako bakarrik. Arazoa, Udalak egindako politika desegokiak sortu du: alferrikako semaforoan pilaketa, errotonda aldrebesen ezarpena, udaltzainen lan eskasa, Urola trenaren desagerpena...". Erkaxokoen tzat saihevide berria "ez da beharrezkoa". Eta trafiko pilaketari konponbidea emateko, irtenbide "sinple, merke, logiko eta efektibo" batzuk proposatzen ditu:

- Errotonda itxiak.
- Garraiobide publikoaren erabilera.
- Lantegieta-ko sarrera-irteerak kontrolatu. Ordu ezberdinetan jarri.
- Espaloiak.
- Bidegorriak.

SAIHESTEKOA?



EZ

AZPEITIKO UDALAREN PROPOSAMENA

A aukera

- **IBILBIDEA.** Eskusta harrobian abiatu, Izarraitzen behealdetik igaroz, Munategin amaituz. Lur ez-urbanizagarrian joango litzateke.
- **LUZERA.** 3,8 kilometro litzuzke.
- **LANAK.** Bi tunel litzuzke, 290 eta 430 metrokoak. Bost pasabide.
- **AURREKONTUA.** 3.156 milioi pezetakoa.
- **INGURUMENARI ERAGINA.** B aukeran baino balio-galera txikiagoak leudekela esaten da ikerketan, eta lurren baldintza egonkorragoa azpimarratzen da.

B aukera

- **IBILBIDEA.** Eskusta harrobian abiatu eta Landetak industrialdea zeharkatuko litzuzke, ertzetik, Zapatarri bidean sartuz. Ondoren, Loiolako bailara igaroko luke.
- **LUZERA.** 7,3 kilometro litzuzke.
- **LANAK.** Tunel bakarra luke, 555 metrokoa. Zazpi pasabide litzuzke eta 80 metroko zubia.
- **AURREKONTUA.** 5.000 milioi pezetakoa.
- **INGURUMENARI ERAGINA.** Nekazal lurrazalera zeharkatuko litzuzke eta Loiolako ibarrak eragin larria izango litzuzke.

Azpeitian behar al da saihsbiderik? Azpeitiko Udalak bere proposamena egin zuen orain dela urte batzuk. Orain dela hiru aste, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak berea egin zuen

Nerea Uranga



EZ

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAREN PROPOSAMENA

Iparraldekoa

● **IBILBIDEA.** GI-631 Zumaia-Zumarraga errepidean hasiko litzateke, Eskusta harrobi parean. Izarraitz magalean segitu, Azkoitiko herrigunearen hego mendebaldean amaituz. Eskusta harrobiaren inguruko lurzoru hiritarra eta Basarte industrialdeko lurzoru hiritargarria izan ezik, lurzoru hiritarrezinean egingo litzateke.

● **LUZERA.** 4,6 kilometro inguru litzuzke, eta errepidearen 950 metro egokitu beharko lirateke.

● **LANAK.** Bi zubi egingo lirateke. Bederatzi goiko eta azpiko pasabide litzuzke, eta bi tunel, bata 280 metrokoa eta bestea 270koa. Hiru biribilgune eta tartean lotune bat egingo lirateke, Udalak proiektatutako biribilguneaz gain. Landeta ingurua egokituko litzateke, saihsbidearen hasieratik Amue eta Arretxe arteko biribilguneraino.

● **AURREKONTUA.** 31.999.621,65 euroko aurrekontua luke (53.242.889 milioi pezeta).

● **INGURUMENARI ERAGINA.** Iparraldeko aukerak aldaketa handiagoa eragingo luke paisaian. Harizti bat kendu beharko litzateke, etxebizitza gehiago botako lirateke, eta, behar bada, lurpeko uraren kalitatea okerragoa litzateke.

Hegoaldekoa


● **IBILBIDEA.** Hasieran ibaia gurutzatuko luke, ibaiaren eskuinaldeko mazelan zehar joanez. GI-631 errepidean hasiko litzateke, Eskusta harrobian, eta Landeta auzoaren herrigunetik jarraitu. Ibilbideak Sistiaga eta Mandiola-Munategi ibarrak zeharkatuko litzuzke. Lurzoru hiritarretik joango litzateke Eskustatik Landetako biribilgunea igaro arte; lurzoru hiritargarrian zati bat luke, eta beste zati handi bat Loiolako Santutegiaren babes eremuan legoke.

● **LUZERA.** 5,2 kilometro inguru litzuzke.

● **LANAK.** Zubi bat egingo litzateke, ibaiaren gainean. Goiko eta azpiko zazpi pasabide litzuzke. Tunel bakarra luke, 425 metrokoa. Biribilgune bat eta tarteko lotune bat egingo lirateke, eta Landeta ingurua egokitu.

● **AURREKONTUA.** 31.567.626,85 euroko aurrekontua luke (52.524.110 milioi pezeta).

● **INGURUMENARI ERAGINA.** Eragin txikiagoa luke. Eta herrigunetik saihsbidera errazago iristeko aukera legoke. "Zirkulazioa azkar banatzen da aukera honekin eta industrialdetik datozen ibilgailu astunen trafikoa arintzen da".



udal erabakiek

Eskaera egin duten kultur talde eta proiektuei laguntzak bidean

Udaleko Kultura Batzordeak, aurrean diru laguntza jasoko duten talde eta proiektuen berri eman du. Kultura batzordean aurrengorako diru laguntza eskaera egin duten 25 talde eta proiektu lagunduko dira. Taldeen artean: Antxieta Arkeologi Taldea, Zine Kluba, Argazki Elkarte, Dantza Suelto Elkarte, Baite Euskara Elkarte, Julian Barrenetxea Abesbatza, Itsasi Dantza Taldea, Izarraitz Txistulari Taldea, Sahatsa Dantza Taldea, Nemesio

Otaño Abesbatza, Urrestillako Musika Taldeak, Zubi Zaharreko Musika Taldeak, Lakrikun Antzerki Taldea, Juventudes Marianas Vicencianas, Erriarraitz Bertsozale Elkarte, Kitarra Taldeak eta Hau da! Kultur Elkarte. Talde hauetatik diru kopuru gehiena 25. urteurrena ospatu duten taldeak jaso dute: Zine Kluba, Itsasi eta Argazki Elkarte. Beste talde batzuk ere gehitu dira zerrendara, Lagun Onak M.B., Nuarbe Sokatira, Kinttela Zezenzale Elkarte eta Sanjuandegi eta Urrestillako Festa Batzordeak. Berrikuntza nagusietakoa Kultura Produkzioarena izan da; honetan beste zenbait proiektu ere lagundu dira.

Asier Cuevas

gurien...

Atleta

«Entrenatzeko hemengo zirkuitua harribitxi bat da»

Nerea Uranga / Eibartarra da, baina sarritan Loiolako ibilbidean aritzen da entrenatzen. Azpeitian zenbait probatan ere parte hartu du. Sanjoanetan Urrestillako Lehen Herri Krosean lehenengo postua lortu zuen.

• Noiz hasi zinen korrika?

Lehen lasterketa sei urterekin egin nuen, orain 23 urte. Eskolan hasi nintzen, eskolarteko probatan. Zortzi urterekin beste bitan parte hartu nuen. Eta 10 urte beteta gero, jarraian, gaur arte. Azken urteetan Goierri Garaia taldean nabil, eta entrenatzailea Santi Perez dut.


• Entrenatzera Azpeitira etortzen zara, nolatan?

Diego Garciaeren talde eta entrenatzaile bera nuen, eta hona etortzen hasi nintzen. Entrenatzeko hemengo zirkuitua harribitxi bat da.

• Azpeitian zenbait lasterketatan ere izan zara.

San Silbestrean gustura aritu nintzen, maratoi erdian min hartuta nengoen. Azpeitian giro polita izaten da, jende asko joaten baita probetara. •

“Azpeitian lasterketatan giro polita izaten da, jende asko joaten baita probetara”



Bake Konferentzia mahaiaren bueltan mintzagai



Elkarriren afari-tertuliaren une bat. / JOSU AZPILLAGA

Idoia Mendizabal / Ekainaren 28an, Urrakira bidean dagoen Goi Kabi Elkartean, Azpeitiko Elkarririk antolatuta eta deituta 60ren bat lagun bildu ziren. Mokadutxo bat egin bitartean, talde txoetan eta bata bestearekin tertulian jarduteko aukera izan zuten bertan bildu ziren lagunak.

Kafe orduan, berriz, denak bildu eta, Bittor Aierdi, Elkarriko koordinatzailearen hitzak entzun izan ziren. Bittor Bake Konferentziaren inguruan aritu zen. Ondoren, galdera, kezka eta abar azaltzeko aukera izan zuten, eztabaida polit bati leku emanez. •

Izarraitzen lurrak erosiko ditu Udalak

Izarraitz mendi magalean lurrak erosiko ditu Udalak, geriatriko berriaren proiektua han kokatu nahi baita. Udaletxeko arduradunen gehiengoaren, EAJ eta EAKo zinegotzien erabakiz onartu da. Bata-sunekoak abstenitu egin dira.



Izarraitzen magala. / UZTARRIA

Ohiko udalbatzak hilaren lehenengo asteazkenean egitea erabaki da

Ekainaren 14an, Sindikatu Zaharreko behin behineko bilkura aretoan egin zen udalbatzan, udalbatzak egiteko egutegia erabaki zuten Udaletxeko arduradunek, bai ohiko udalbatzena eta baita bereziena ere. Ohiko udalbatzak hilaren lehenengo asteazkenetan arratsalde edota iluntzean egitea erabaki zen. Eta ezin balitz, ostegunetan eguerdi edota iluntzean egingo lirarteke udalbatzak.

pertsonaje



Xabier Madina

Xabier Madina azpeitiarra eta Amue kirol Elkarte-ko kideak maiatzaren 25 eta 26an Lleidan jokatu zen Slalomeko Espainiako txapelketan aurreneko postua lortu zuen.

Aurtengo denboraldian emaitza onak lortu ditu elbarrituen kirolean Xabierrek. Lleidan lortutako

lehen postuaz gainera, ekainaren 22-23ko asteburuan Madrilen jokatu zen Espainiako Atletismo txapelketan garaile izan zen, ehun eta berrehun metrotako probetan.

Azken garaipen hauekin, Xabier Madina kirolaria, dagoeneko, Espainiako elbarrituen kiroletako probatan 26 tituluren jabe egin da. Amue Elkar-tekoek emaitza politak lortu dituzte aurtengoan. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTTEKO EPEA: Uztailak 10 (astelehena)

HELBIDEA: Uztarría, Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Aintzin dendako oparia edo erosketa txartela.

AURREKO ARGAZKIYUE...



...ETA SOLUZIZUE



IRABAZLIE: Arkaitz Imaz Aranbarri



Arkaitz Imaz Aranbarri izan da 30. garailea. Agirre oparidendako saria irabazi du. Argazkian, Arkaitz bera —ezkerrean— eta Iñigo Agirre—eskubian— ageri dira oparia emateko unean.

“Euskal selekzioak txapelketa guztietan ondo ibiltzeko moduko selekzioa eta jokoa du”

Juanan Larrañaga
(futbolari ohia eta kirol esataria)

“Badaude ordu asko eta bertso gutxiko herriak; baita ordu gutxian bertso asko nahi dutenak ere”

Xebastian Lizaso
(bertsolaria)



Laja. / EGUNKARIA

“Iturbiderekin diskoa atera eta kromatika jotzen zuten bi bizkaitar propio etorri zitzaizkigun”

Iñaki Garmendia ‘Laja’
(soinujolea)

Pasaiko segada argitzeko epaiketari, hurrena goi karguak epailearen aurrean


Miren Mendizabal / 1984an Poliziak Pasaian hildakoen auziak aurrera jarraitzen du. 2000. urteko irailean ireki ziren berriro kasua argitzeko diligentziak, 1987tik auzia geldituta egon eta gero. Komando Autonomo Antikapitalistetako lau kide hil ziren poliziaren segadan, tartean bi azpeitiar, Pedro Mari Isart *Pelitxo* eta Dionis Aizpuru *Kurro*.

Ekainaren 6an, Donostiako 2. Instrukzioko Epaitegian Espainiako lau poliziak deklaratu zuten inputatu gisa; 1984ko martxoaren 22an Pasaiko badian izandako segadan parte hartu izana ukatu zuten poliziek. Eta akusazio partikularreko abokatuak, Santiago Gonzalezek epaitegitik irten ostean azaldu

zuenek, “poliziek deklarazioan azaldu dutenez, gertaeren lekutik urrun zeuden, nahiz eta tiroak entzun zituzten. Baina ez zutela ezer askorik ikusi adierazi dute”.

Ion Ziarsolo Isartek, segadan hildako baten senideak dio poliziek deklarazioan “gezur asko” eta “kontraesan ugari” esan ditzutela. Lau polizietatik hiruk deklaratu dute Pasai San Pedron zeudela gertakariaren unean, eta batek esan du Pasai Donibanen zela orduan. Bestetik, poliziek senideen abokatu Santi Gonzalezek galderak erantzun ez izana salatzen du.

Pasaiko segadaren epaiketari aurrera pauso batzuk egin baldin baditu ere, oraindik zereginik bada senideen ustez, kasua behin betiko argitzeko.



Komando Autonomoetako lau kideen txalupa. / EGUNKARIA

“Guk, orain, poliziaren goi-karguak deklaratzera deitu ditzatela eskatuko dugu. Epaileak polizien deklarazioan nahiko jarraia ona erakutsi du, eta alde horretatik gustura gaude, baita ematen ari diren aurrera pauso-

ekin ere”. Ziarsoloren iritziz, “kasua aurrera doala ikusten da. Poliziek deklarazioa, aurrez pixka bat prestatuta eraman balute, kasua ixteko aukera zegoen. Baina poliziak onartu egin dute tiroketak izan zirela eta”.

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

LORE SORTAK
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiolo-Bide, 25 - AZPEITIA

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA




AMARA TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorria



Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

Ekaineko irudiye



ERREPIDETIK TRENBIDERA. GI-631ko Azpeitirako sarrera edota Zestorako irte-
erako errepide gunea, arrisksua da nonbait. Aurrekoan autoa, ekainaren 24an kamioia. Hurrengoan?

“Bide zailtan, talde lanak du garrantzia; batek sakrifikatu behar du besteak tontorra lortzeko”

Josu Bereziartua
(goi mendizalea)

motxien

‘Kafe’ kartzelan borrokaldian dago

Garikoitz Etxeberria *Kafe* azpeitiar preso, euren esku-bideak aldarrikatzeko borrokaldian da. Gazteen moduloan egoera larria dela eta handik euskal presoak ateratzea eta intimitate eskubidea bermatzeko ziegetan banaka egoteko eskubidea eskatzen ari dira presoak borrokaldian.

Liburuak, Iraurgik 20an eta Itsasik 27an

Iraurgi Saskibaloi Elkartek, 25. urteurreneko ekitaldien barruan, klubari buruzko liburua aurkeztuko du uztailaren 20an. Itsasi ere aurten ari da ospatzen zilarrezko eztaiak, eta dantza taldearen urteotako ibilbidea jaso du liburu batean; uztailaren 27an aurkeztuko du.


Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdia:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA


AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

ACADEMIA DE FRANCES
FRANTSSES AKADEMIA



apunta
zaitez!

 15 00 92

Bustinzuriko Arrabala, 12 - 1



kitzika | **joyeria**

Brillanteria-Oro Blanco y Amarillo-Festina Oro
Pastorkua Tabernaren ondoan
Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.70.13 AZPEITIA


Haurtzaindegia
AZPEITIA

0-3 urte
bitarteko umeak
zaindu eta hezitzen
26 urteko esperientzia

JESUS ETA MARIA KOMENTUA
LOIOLAKO INAZIO HIRIBIDEA

 943-813190



“Girionon ondo ibiltzea espero nuen baina ez bigarren egitea”

Joseba Albizu txirrindulari azpeitiarra 12 urterekin hasi zen bizikleta mundua ezagutzen. Haren lehen urteak, Lagun Onak Txirrindulari Elkartearen egin zituen. 11 urte daramatza txirrindularitza eta Cafés Baque taldean dabil. Bikain ibili ere; Girionon bigarren izan berri da.

● Nolatan hasi zinen txirrindularitza?

Beti gustatu izan zait. Familiaren ez da inor txirrindularia izan. Gustuko dudalako, neure afizioz hasi nintzen.

● Zeintzuk izan ziren lehen urratsak?

Lagun Onak Txirrindulari Elkartearen ibili nintzen, jubenetako bigarren urtea arte. Infantiletan ez nuen probarik irabazi. Gero, kadeteetan, hiru proba irabazi nituen, eta jubenetan hamabi.

● Noiz eman zenuen afizionatuertarako pausoa?

18 urte nituela. Herrian ez zegoen afizionatuen talderik eta kanpora atera beharra zegoen. Ni Beasaingo Iberdrola taldera joan nintzen.

● Zer moduz moldatu zara afizionatuetan?

Ondo esan beharko. Lehenengo bi urtetan nahiko gaizki, istripu bat izan nuela-

ko, eta lesioagatik ez nintzen asko ibili. Baina azken urteetan hobeto. Irabazi dudana probarik garrantzitsuen aurreko urteko Goierriko Itzulia izan da.

● Afizionatu artean nolako maila dago?

Euskal Herrian oso maila ona dago. Kanpora begira, Italian pixka bat maila hobea dute; lur lauan azkarragoak eta indartsuagoak dira haiek.

● Girino lasterketan bigarren postua lortu berri duzu. Espero al zenuen emaitza hori?

Ondo ibiliko nintzela pentsatzen nuen, baina ez bigarren egitea. Hasieratik bosgarren postuan sailkatu nintzen, eta zortzigarren etapa arte mantendu nuen; han bigarren postua lortu nuen.

● Non entrenatzen zara? Nolako da zure egun bat?

Hemen inguruan ibiltzen gara, Beasain, Mandubia, Beizama inguruan. Bederatziak aldera jaiki, eta gosalduta egiten dut. 10:30ak aldera bizikleta hartu eta entrenatzera joaten naiz, 13:00ak edo 14:30ak aldera arte. Ondoren, bazkaldu eta lo kuluxka. Gauean lagunekin pixka bat egon eta ohera.

● Zure hurrengo proba Bizkaiko Bira da. Zer asmorekin zoaz?

Hasieran, irabazteko asmoarekin noa. Gauzak okertzen badira, edo denbora galtzen badut, taldekideren bati laguntzen saiatuko naiz.

● Zure ibilbideko oroitzapenik onena eta txarrena?

Oroitzapenik txarrena lehen bi urteetako da, istripua izan nuen, eta ezin izan nuen ia probarik egin. Onena, berriz, aurreko urtean Goierriko Itzulia irabazi nueneko da.

● Zein proba duzu gustukoena?

Niri gehienbat itzuliak gustatzen zaizkit, laupabost eguneko itzuliak.

Profesionaletarako bidean

● Girino lasterketan erakutsi duen maila dela eta, Italiako hainbat taldek Joseba Albizurekiko interesa azaldu dute; besteak beste, Saecok, Alexiak eta De Nardi-Pasta Montegrappak. Baina Josebak ez du ezer erabaki. “Ez dut inorekin hitz egin. Pixka bat aurrerago erabakiko dut zer egin”. Profesionaletarako jauzia guz-

tiak buruan duten ametsa da. Josebak amets hori gero eta gertuago ikusten du. “Azken urteetan urrutit samar ikusi izan dut, baina orain bigarren postua dela eta, ametsa egia bihur daitekeela uste dut”. Italian afizionatu mailako hmazazpi talde daude, eta, beraz, “errazagoa da profesionaletara pasatzea”.

Beloki
 kate Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
 AZKOITIA
 Jose Artelxe, 21 Tel.: 943 151392
 AZPEITIA



PATXO
 EDUARDO BERASATEGUI
 Harategi eta Zerritegia
 Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
 Urrut. 943 81 14 98



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
 TEL. 81 60 25
 ETXEKOA 15 00 03
 AZPEITIA



Harategi
 Especializatua

Arana Kalea, 14
 Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA


FORU HIBILBIDEA, 4
 TFNOA 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
 HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
 TFONOA.: 943 811671



ETORKIZUNAREN AURREKO ITSUTASUNA



Arazo latz bat daukagu autoekin. Ez erosteko orduan, dirudienez, gero baizik. Autoak leku asko hartzen baitu, bai gure bizitzan, bai gure patrikan, bai gastuen gure prebisioetan, bai gure kaleetan, bai gure herrietan. Gure kaleetan autoentzako lekurik egin ezinda gabiltza; aparkalekuak etengabe egiten eta hala ere nahiko leku ez; errotondak egin eta egin, eta hala ere ilarak eta ilarak. Asteburuetan kilometroetako prozesioak osatzen dira kostalderantz, eta gero handik bueltan. Gure psikologian ere eragina du autoak: zenbat aldiz ez ote dugu, inkontzienteki bada ere, pertsona baten balioa, estatusa edo eragin soziala dabilen autoaren arabera neurtu?

Gaur egun, Azpeitiak arazo latz bat dauka autoekin. Hala irakurri dut pasa den hilean, egin beharrekoa den bariantearen bi asmoak berriro kaleratu dituztenean. Trafiko saturazioa omen dago kamiño zaharreen; egunero ez dakit zenbat milaka gurpilkari pasatzen omen dira. Egunaren ordu kritikoe-tan, bazkaltzera doazenean edo lanetik ateratzera-koan, jendearen umorea ikusi behar! Herriaren bakea hausten duen fenomeno bilakatu da trafikoarena, bidaiarien erosotasuna eta pazientzia hondatzen dituen arazoa. Irtenbidea behar da:

beste bariante bat, lehengoa baino zabala-goia; beste milioi sorta beldurgarri bat; obra latzak berriro, zulatu behar diren bazter-
rrak zulatuta, dena autoaren mesedean.

Autoak gero eta handiagoak dira: ume bat daukan edozeinek dakarkizu *monovolumen* erraldoi bat; etxe bakoitzean daude hiru, lau auto. Autoak gure espazioa jaten ari dira, publizitateak (autoenak eta bes-teenak) gure burua jaten duen abiada berean.

Gipuzkoan izan ditugun Errepide eta Obra Publikoko Kontseilarietatik inork ez du jakin etorkizunean autoen eragina zertara iritsiko zen neurtzen. Gure herrietako alkate gehienek ere ez diote autoaren fenomenoari tankerarik eman; edo ez diote eman nahi izan. Hain zuzen ere, horrek erakusten du politiko baten balioa eta duintasuna: etorkizunean gure herrian zer

gertatuko den antzematen jakitea, eta aldaketa horiei, txarrak diren kasuan, aurrea hartzea eta saihesten jakitea.


Azpeitian Urola tren itxi zuten politikoez ez zuten autoen gorakadak zer ekarriko zuen ikusten jakin. Gure gurdi-bideak kamino bihurtuak ziren ordurako, kaminoak karretera, karreterak errepide eta hauek bariante, eta ahal balitz, autobia. Autoak gero eta espazio gehiago eskatzen du gure bizitzan. Eta Gipuzkoa txikia da, menditsua da, gure herririk gehienak mendiartean sartuta daude. Nora goaz? Non daude bista luzeko politikoez, arazoez aurre hartuko dietenak? Gauzak hondatu ondoren milioikada izugarriekin konpontzera ohitu dira gure politikoez, haien itsutasuna (nahigabea ala nahitako) gure konformismoarekin sendatzera.

Bageneukan tren bat, orduan xahartzat eta kas-kartzat geneukana, baina orain balio handikoa izango litzatekeena zaindu bagenu. Trenak leku gutxi hartzen du, mantenu merkea du, eta jende asko eraman dezake, merkantzia asko. 20 auto eta bi kamioi behar dira gaur lehen Urolak biaje batean eraman zezakeena garraiatzeko. Urolaren berri-

tzeara garestia omen zen; gezurra, huskeria bat zen, geroztik errepideak

konpontzen eta aurre-rantzean egiten gasta-tuko dutenaren albo-an.

Gaur ikusten da Urola konpontzea merkea zela, mese-de ikaragarria egingo ziola gure baila-rari, herri guztiak in-bidiaz begiratuko zi-gutela, etorkizuneko garraioa zela. Begi-ra: hiriburuetan me-troa eta tranbiak jar-tzen ari dira. Trena hor eduki genuen; etorkizuna ikusten ja-kingo zuten politikoez falta izan zitzaizkigun.



HILEKO GALDERA. Babes ofizialeko etxeak ba al datoz?
Eta Gaztegunea? Eta kultur etxea? Eta...

Uztarrria Saninaziyuek

Uztarriaren txirrindularitza porrako izen-ematea uztailaren 6an bukatuko da



Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarrria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizuna

• **PORRA:** Aurten ere Uztarriak Frantziako Tourra txirrindularitza probaren II. porra antolatuko du.

• **IZEN-EMATE ORRIAK NON?:** Izen-emateko orria uztarrria.com webgunean egongo da. Inprimatu eta Uztarrrian utzi daiteke edo taberna hauetako batean: Urtzin, Etxe Zurin, Errekan, Intzen, Lokotxen, Okerren, Amaian eta Korralen; taberna hauetan ere jaso daitezke izen-emate orriak.

• **IZEN-EMATEA ZENBAT?:** Izen-ematea 15 euro kostatuko da. Ordainketa izen-emate orria entre-

gatzearekin batera egin behar da.

• **SARIAK?:** Puntu gehien lortzen duten lehen hiru partehartzaileek jasoko dute. Jasotako guztia-
 ren %40 lehenak, %20 bigarrenak eta %10 hirugarrenak. Uztarrria jasotako diruaren %30arekin geldituko da. Sariak Tourra bukatzean banatuko dira, lortutako puntuen arabera.

• **JARRAIPENA NON?:** Puntuaketa nola doazen ikusteko aukera izango da egunero uztarrria.com webgunean eta tabernatan.

albiste txikiyek

Txosnarako txandak

Uztarrria urtero Saninaziyotan jartzen duen txosnarako txandak prestatzen hasi da. Inork txanda bete nahiko balu, Uztarriaren telefonora deitu besterik ez du.

Gida Komertziala

Euskaldunon Egunkaria-k atera duen 2002-2003ko Euskaldunon Gida Komertziala banatu zuen Uztarriak ekainaren bukaera aldera, opari gisa, aldizkariako bazkideen eta harpidedunen etxeetara.

Imanol Eliasen biografia, atzeratu beharra

Liburu egilearen azken uneko arazo pertsonal batzuk direla eta, Uztarrria Kultur Koordinadorak azkenean irailen aurkeztuko du Imanol Elias historialari eta idazleari buruzko biografia—Uztarriaren hirugarrena—, eta ez, aurreikusia zegoen bezala, uztailaren 13an.

570 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____

KODE POSTALA: _____

TELEFONOA(K): _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

Azpeitian, Tolosan, Espainian, Italian, Kuban eta AEBetan ibili da Inazio Olarreaga 'Gerri' pilotan, eta, egun, Renon (Nevada, AEB) bizi da, arrantxo batean, erretiratuta

AZPEITIAK BAKARRA NEVADAN

Testuak: Mikel Anjel Elustondo / Reno (AEB)

Bdira 40 urte baino gehiago Inazio Olarreaga *Gerri*-k Azpeititik aldegin zuenetik, eta lanak ditu pertsona eta toki izenak gogora ekartzen. "Inazio Olarreaga Agirre Oria Urdalleta naiz. Aita, Aizarnazabal, Altuna baserrikoa. Ama, Elosiagakoa, Etxenagusi baserrikoa. Azpeitian jaio nintzen. Nola da etxe zahar hori estazioan, guardia zibilen kuarteletik bestaldera? Nola du izena palazio hark?". Enparan? "Bai! Horixe! Enparan!". Eta Arabako ardoa dastatzen ari denak egiten duen bezala egiten du: usain eta gustu hartzen dio izenari, iraganari begira. "Enparan!". Inaziok esandakoaren arabera, Arruti etxea behar du. "Hantxe jaio ginen Pepita eta biok. Hiru arreba eta bi anaia gara: moja, ni, Juan Joxe, Jone eta Maria Jesus. Gaur egun Juan Joxe eta Maria Jesus beste inor ez da bizi han"; Azpeitian, alegia. "Ez zait akordatzen zenbat denbora egin ote nuen estazioko etxe horretan. Gero Pilar Arrueneko etxera aldatu ginen. Aitak Uriarte familia ezagutu zuen, ez dakit nola. Abokatua zen Uriarte hori. Etxe atzean, berriz, baratza genuen: sagarrak, txermenak, loreak... denetatik".



- **Ameriketako Estatu Batuetan, Renon bizi da Inazio Olarreaga, Nevada estatuan, AEBetako mendebaldean.**
- **Bi milioi lagun bizi dira Nevadan, eta Carson City da hiriburua. Reno da (180.000 biztanle), Las Vegasekin eta Carson Cityrekin batera, hiri nagusia.**
- **Turismoa, merkataritza, makineria, argitalpenak, janarien industria eta ekipo elektrikoak dira Nevadako industriako ogibide nagusiak.**
- **Laborantzak ere garrantzia du: esnekiak, patata eta haragitarako ganadua.**





AZPEITITIK TOLOSARA. Ez zegoen inon idatzirik baina pilotari izango zen Inazio. Hala tokatu zen, Jainkoa lagun ez baina Txikuri lagun. "Gure aita Agirreneko fabrikari ari zen lanean, Txikurirekin batera. Honek seme bat zuen zesta punta jokatzen zuena, eta beste bat gazteagoa, Santiago, jokatzen hasten ari zena. Txikurik esan zion gure aitari: 'Hazi ezak semea pilotari! Nik bi seme ditiat hor, zesta punta ikasten!' Dirua egingo zutela, eta hau eta hori. Azkenean, gure aitak inguratu zituen zesta eta pilota zahar bat, eta pilotan hasi nintzen".

Artetxenekoa parean zegoen orduan frontoi handia: Vista Alegre. "Zubeldiak izaten zuen pilotalekuko giltza. Hark ikatza erosten zigun, eta aitak esan zidan behin: 'Joan eta esaiok pilotalekura sartzen uzteko'. Eta ikatza eraman nion batean, galdetu nion. Baietz, jakina. Baina laster konturatu nintzen ez nuela giltzarik behar. Gure etxeko baratziatik salto egin, Hotel Casino atzeko aldetik, eta pilotalekura sartzen nintzen, inori baimenik eskatu gabe. Zubeldiak berak ere bazekien, baina ez zitzaion inporta: neu nintzen hara giltzarik gabe sartzen nintzen bakarra. Inor giltza hartuta etortzen bazen, Zubeldiari ordainduta, orduan nik aire! Frontoitik alde egin behar. Akordatzen naiz asko etortzen zela Otamendi; paletaz jokatzen zuen, asko, taldetxo batekin".

Hurrena, Tolosara hasi zen, Beotibarko pilota-eskolara, garai bateko korreo-autobusa hartuta. "Eskola doan zen, Kubako pilotalekuak ordaintzen zuen eta, Beotibarko gazteei erakusteko. Onenak ziren Etxaniz, Izuzkiza, Egurbide anaiak, Txikuri, Tolosako hiru anaiak, Villabonako bat, Astigarragako beste bat —ile gorria, Astigarraga esaten genion, elkarrekin jokatu genuen Orlandon eta Renon ere egon zen pilota kontratua bukatu eta gero—, Sabino Egaña Arrosa... Gu orduan ume tzarrak ginen. Astean hiru aldiz joaten ginen Tolosara. Elizondo izeneko bat zen gure maisua pilotan. Villabonakoa zen. Hura zen lapurra, hura! Kubako enpresak dirua bidali guri laguntzeko, bidaiak eta ordaintzeko, eta hark bere poltsikora".

KUBARA, JEREMIAS ABALIA LAGUN.

Eta Tolosatik Madrilera, jokatzerara. "Emakumeek, raketistek, jokatzen zuten lehenengo, eta gero guk. Nahiko diru ematen ziguten jateko eta etxea pagatzeko, eta ondo, dirua aurreratzeko modurik gabe. Gazte ginen eta zer eskatu behar genuen!". Madrilen bi urte eta erdi egin eta Italiara jo zuen Inaziok. "Urte bat egin genuen Firensen, Florentzian, eta beste bat Napolin. Jaten ematen ziguten eta dirua, berriz, 'hurrengo hilean', 'hurrengo urtean'... beti horrela. »

Inazio Olarreaga Gerri, bere arrantxoan. / ZALDI ERO

» Eta pilotalekuko managerrarekin haserretu nintzen. Eta maletak egin eta ospa egin nuen inori ezer esan gabe. Ez zuten asko pentsatzen horrelakorik egingo nuela, baina egin nuen. Hanka, Azpeitira". Artean hogeitortu urte ere ez zituela.

Azpeitian ikatza saltzen lan egin zuen, eta ez zen mugituko, Jeremias Abalia fortunatu izan ez balitz. "Hil zen Abalia. Azpeitiarra zen eta gaztetan Kubara joan zen. Eta Habanara eraman ninduen. Beste bat bazen Kuban azpeitiarra, Guillermo, organoak egiten zituena. Milagritos batekin zegoen ezkondata. Agirreneko fabrikaren ondoan bizi zen Milagritos hau, Lapatxeneko etxean. Guillermok inguratu zidan bisa. Neuk ordaindu nuen bidaia. Jeremiasek Habanan Juanito Saizarbitoria ezagutzen zuen, Mutrikukoa, jende ona. Aldi batean —bi aste edo— Guillermoren eta Milagritosen etxean egon nintzen. Uste dut bi seme ziztuztela. Juanitok etxe handi bat zuen, Centro Vasco jabetxea. Eta sukaldariak. Bata, Justo, Zestoakoa. Beste bat, oso laguna nirena, Tomas Arrizabalaga, handikotea, indartsua, Azkoitia eta Elgoibar tartekoa zela uste dut. Atano III.aren alabarekin zegoen ezkondata. Juanitorekin zegoen. Soinua eta panderoa jotzen zutenekin ibiltzen zen Tomas, berak ere panderoa jotzen zuen eta. Sukaldaria zen eta jaten ematen zidan, nahi nuen dena: txuleta, paella... eta txerri txiki bat bezala gizentzen hasi nintzen. Azkenean, hiru hilabete ondoren edo, kontratua egin zidaten Habanako frontoian. Baina, hiru hilabetez, Euskal Etxeko sukaldarian laguntzen eta gero pilotalekura entrenatzen joaten ibili nintzen".

Bost urte egon zen Habanan, Fidel Castro Kuban boterean jarri arte. Fidelekin dena aldatu zen. Pilotaleku denak itxi zituen eta joko profesional denak galarazi. "1960an edo, unibertsitateko eskaileretara joan eta marxista-leninista zela aitortu zuen. Ordu-

rako, Ameriketako Estatu Batuek (AEB) turismoari ateak itxi zizkioten eta dirua zuten denak AEBetara joan ziren. Oso jende gutxi joaten zen pilotalekura. Oraindik han zen Etxaniz azkoitiarra. Beste azkoitiarra, Izuzkiza, Filipinetara joanda zegoen aurretik. Gero Miamira joan zen. Ni Orlandon izan nintzen 1962tik 1964ra. Hiru denboraldi. Arrona ere kontratu gabe utzi zuten. Eta Astigarraga eta horrela".

Oroitzapen ederra du, hala ere. "Bizimodu ona zen Habanakoa. Ez zitzaidan batere kostatzen. Jaten ematen zidaten eta ez nuen logela ordaintzen. Juanitok, gero,

Miamin ireki zuen Euskal Etxea. Nonbait, garaiz atera zuen dirua Habanatik. Jende asko ibiltzen omen zuen. Tomas Arrizabalagak ere, nonbait, bere jabetxea zabaltu zuen. Miamin".

BEGI BAT ALFERRA. "Pilotari txarra, txarra nintzen. Ez dakit nola jokatzeko nuen ere. Begi bat ixten badidazu, ez dut ikusten. Ez nintzen konturatu Habanara iritsi arte. Jeremiasek esan zuen: 'Mutil honek arazoak ditu, ez du ondo ikusten'. Behin hots egin zidan eta galdetu zidan: 'Zer duzu begietan?', eta nik: "Begi batetik ez dut ondo



Inazio Olarreaga 'Gerri', arrantxo kanpoan. / ZALDI ERO

Zergatik dira 'Gerri'?

● Olarreaga esan eta asko ez dira akordatu. Bestela da ezizena esanda, eta Inaziok ere badu: "Bai, Gerri gara. Nonbait, aita, gazterik, erori egin zen eta gerria hautsi. Okertuta geratu zen, ez zen hazi. Gerria okerra zuenez, Gerri esaten zioten. Eta hortik, gu, *Gerrinekuek*. Beste azpeitiar bat ere badago hemen, Los Angelesen, *Kanpaxa*, Javier Altuna. Etorri zen behin eta horixe galdetu zidan: 'Nola esaten zioten zuen familiari? Zer ezizen zenuten?' Eta nik: Gerri. Eta Javierrek: 'Ah, bai, akordatzen naiz. Guri ere inork ez

digu Altuna esaten. Kanpaxa esaten digute". Javier Altuna Inglewood-en dago, Orange County, Los Angeles inguruan. Renotik bederatzi bat ordura edo. "Gainerakoan, Nevadan, azpeitiarrak, zeu eta ni, besterik ez". Kalifornian Kanpaxa, Nevadan Gerri, eta Idahon Alberto Bereziartua; Inaziok hau ez du ezagutzen.

Inaziorekin hitz egitea sasoi bateko Azpeitiko kontuak berritzea da. Pasadizoak, eta adiskideak. "Lagunak nituen *Egibartxo* —Inigo eta Joxe Egibartxo—, eta Anttonio. Ez dakit haren beste izenik. As-

kotan joaten nintzen Egibartxora. Pikua ganean bizi ziren, hirugarrenean. Gero erre egin zen etxe hura. Anttonio ere arrabalean bizi zen. Beste lagun bat ere akordatzen naiz, Luxiano, *Beixama*-rekin entrenatzen zena. Guanteak janzten laguntzen zion Beixamari, erreflexuak izaten eta horrela. Soka saltoan-eta ibiltzen zen Beixama. A zer garaiak! Akordatzen naiz Enparan kalean, zelai luzera ailegatu aurretik, kooperatiba zegoela, eta moja komentua gero. Eta bien artean, altzari fabrika bat. Osabarena zen, Juan Joxe Agirre. Ezaguna da; erleak hazten ditu. Gazteei erakusten die eztia ateratzen eta".

“Txikurik esan zion gure aitari: ‘Hazi ezak semea pilotari! Nik bi seme ditiat zesta puntan!’ Dirua egingo genuela”

“Habanako frontoian kontratua egin zidatenean, Euskal Etxeko sukaldean ere egon nintzen lanean”



“Orduko pilotariak, denak zilborra bistan. Jan eta handik bost minutura jokatzera. Desastrea”

“Azpeitia? Bastante kanbiatuta dago. Orain kabaretak dituzte, rock and rolla eta. Garai modernoak”

Inazio Olarreaga ‘Gerri’
(Renon bizi den azpeitiarra)

ikusten, jairo nintzenetik!’. Eta hark: ‘Medikuarenera eramango zaitut. Lagun bat dut hemen, okulista, oso ona, hark ikusiko dizu’. Txanda eskatu genuen eta horixe: jaiotzetik nuen begi alferra. Esan zidaten denbora asko izan banu tapatuta beste begia, lan eraginaraziko ziola. Beharbada horrela bai. Gero, nire begiarena zabaldu egin zen pilotarien artean, nonbait, zer bata besteari esaten zioten: ‘Eh, bota horri eskubi aldera, ez dik ondo ikusten eta’. Inor ez zen konturatu ordu arte, ezta ni ere. Jendeak esaten zuen: ‘Hau pilotari ona izango duk, begiratu zer indar!’ Jakina, indarrez mendean hartzen nituen besteak. Itsu herrian *tuerto* alkate. Inor ez zen konturatu eskubitik kale asko egiten nuela. Argiak zeudenean, batez ere. Itsutu egiten zaituzte eta pilotaren abiadura galtzen duzu. Arronak esaten zidan: ‘Eta nola jokatu duk orain arte?’ Neuk ere ez nekien, eta inor ere ez zen akordatu. Orain ere, autoa manejatzeko, eskubi aldeko ispilua zaindu behar dut, baina ez dut istripurik izan batere eta aurrera!”

Partidurik ez, kiniela jokatzeko zuten Orlandoko frontoian. Eta Inazio ez zegoen haserre. “Guretzat ona zen. Batzuetan, berotu baino lehen, dutxara. Pilota jotzeko aukera bat besterik ez zenuen izaten batzuetan. Horregatik zen ona. Ez zenuen izerdirik ateratzen! Pilotaria golfoa dela, bai horixe! Orain, zahardadean, gehiago zaintzen dut nire burua, ariketa gehiago egiten dut, orduan baino. Orduko pilotariak, denak zilborra bistan. Jan eta handik bost minutura jokatzera. Desastrea. Desastrea, ez genuelako kompetentziarik. Euskalduna besterik ez zen pilotari. Entrenatu? Gogoia ematen bazizun! Managerrak esaten zidan, Andresek: ‘Inazio, marka txarrak daukazazu. Goizean entrenatzera etorri behar zara!’ Entrenatu? ‘Bai, bai...’, esaten nion. Behin ere ez nion esaten ezetz, baina behin ere ez nintzen joaten. Alferra, alferra nintzen!”

ORLANDOTIK RENORA. “Akordatzen naiz Orlandon bazegoela bat, euskalduna, Kalitxe esaten ziotena. Zestak konpontzen zituen, eta Renora etorri zen behin. Oso lagunak ginen. Andres managerrak esan zidanean emaitza txarrak nituela eta beste lan bat bilatu behar nuela... Sabino Egaña *Arrona* eta biok Renora etorri ginen. *Kalitxe* aurretik Renon urte bat eginda zegoen. Euskaldunak ezagutu zituen. Orlandora bueltan joan zen eta esan zidan: ‘Lasai, motel! Han lan asko zagok kontrukzioan!’ Etorri eta kaka! Lanik ez!”

Arronak eta Inaziok zerrategian egin zuten lan, lorategiak zaintzen aldi batez hurrena, eta kontrukzioan gero... 1964an erretiratu zen pilotatik eta urte bat geroago hasi zen Renon. 1994ko otsailaren 21ean erretiratu zen lanetik. “Kontrukzioan beti ondo ordaindu dute, sindikatukoa izanez gero behintzat. Dirua kontrukzioan egin dugu. Erretiratu gero, berriz, ez dut ezer egiten. Jan eta edan eta arrantxoia zaindu, saltzeko. Saldutakoan, bidaiak egin nahi ditugu andreak eta biok. Orduan ez dut izango aitzakiarik Azpeitira ez joateko. Ilobaren baitaioa joan nintzen 1984an, eta beste bueltaren batere egin dut. Dezente aldatuta zegoen. Orain kabaretak dituzte, *rock and roll*-a eta. Garai modernoak. Joan nintzen azken aldiak lagun batzuk ere ikusi nituen: Egibartxo, Anttonio, Beixama ere agurtu nuen”.

Igy izena du Inazio Olarreagak Renon. Izen horixe eman zioten kontrukzioan. “Ezin zuten *Ingnazio* esan, edo zaila zen haientzat, edo ez zuten nekatu nahi. Hortaz, behin, batek esan zuen: ‘Aizu, hemen dik atzera *Igy* esango dizugu. Inporta al zaitzu?’ ‘Niri inporta? Ezta batere!’ *Ingnazio*, zailegia da”, esaten zuten. Eta *Igy* naiz hurrezkerok. Baina zuretzat Inazio, San Inazio Loiola bezala”. *Igy*, Inazio, Gerri, adiskide on AEBetan.


Fidel Castro eta Che Guevara

● Inazio Kuban tokatu zen bertako iraultza lehertu zenean. Eta Fidel Castro, Che Guevara eta beste hainbat lagun ezagutu zituen. Historiaren lekuko zuten izan zen azpeitiarra, zegoen lekuan zegoelako. “Castro-eta ezagutu? Seguru! Centro Vasco jatetxera etortzen ziren bazkaltzera. Akordatzen naiz Fidel etorri baino lehen haren zaintzaileak etortzen zirela dena begiratzera. Eta gero, Fidel bera etortzen zen. Nik sukaldean laguntzen nuen, eta horrelaxe ezagutu nituen Castro, Che Guevara eta horiek. Batista dikta-

torea amerikarrek jarri zuten, asko lapurtu zuten eta asko lapurtzen lagundu zuten. Oso txarra zen baseritarrentzat. Poliziak eta militarrek ezker-eskubi lapurtzen zuten, dendara joaten ziren eta ordaindu gabe aldegiten zuten, eta ez zenuen ezer eskatzeko eskubiderik, bazenekien eta hurrengo egunean akabatuta azalduko zirela. Abuso handiak izan ziren, hark ezin zuten segitu, horregatik etorri zen iraultza. Guatemalatik *Guatepeorrera* joan ginen. Aurretik, sikiera, Kubatik sartu eta irteteko moduan zinen, baina gero ez”.

Azpeitiar bat da Ameriketako Estatu Batuetako, eta bezte ere Nevadako, euskaldun populua ondoen ezagutzen duenetakoa: Miel Anjel Elustondo

Euskaldun populu amerikanoa ezagutuz



Inazio Olarreaga eta Miel Anjel Elustondo.

“1992tik urtero joan naiz Renora eta elkarrizketak eginez aritu naiz”

Miel Anjel Elustondo

Enekoitz Esnaola

Asko dira euskaldunak Ameriketako Estatu Batuetan, eta, batik bat, Nevada eta Idaho estatuetan, orain hamarkada dezente artzain edo pilotari joanak. Miel Anjel Elustondo azpeitiarrak ondo ezagutzen du hango euskaldun populua, 1992tik urtero joan baita Renora (Nevada), eta harrezkerro haietako askorekin egon baita. Bi urte oso han egin zituen (1993a eta 1994a), eta “elkarrizketak egin eta egin” aritu zen. *Egunkaria*-n 60 bat argitaratu zituen.

Normalean hilabete ingururako joaten da Renora, eta Inazio Olarreaga *Gerri* bera 1995ean ezagutu zuen. “Orduan hitz egin nuen estreinakoz Inazioarekin, Renon. Berriatuko Patxi Txurrukarekin hitz egin nuen, eta honek aipatu zidan Inazio. ‘Ez dozu ezagutzen? *Giputxe* esaten genion konstrukzioan”. Patxi eman zidan Inazioaren telefonoa, hala hots egin nion, eta hitzordua egin”. Geroztik, Elustondo Renora joaten denean, “astero-astero” egiten dute juntadizo bat baino gehiago biek.

Argia-n eta *Egin*-en ere idatzi izan du Elustondok. Aurretik ikastolen munduan ibili zen: aurrenik Azpeitiko Ikastolan hamar urtez irakasle, eta 1990ean Gasteizera bizitzera joan (han segitzen du) eta Arabako Ikastolen Elkartearen. ETB1en ere egin du lanik: *Hitzaro* programako zuzendari izan zen eta egun *Sautrela*-ko gidola-ria da. ●

Daukagun **kultura maite** dugulako, euskal eskola nazionalaren bidetik mundu zabalera.

ikasberri

A Z P E I T I K O I K A S T O L A

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net

INFORMAZIO ETA ENTRETENIMENDUA... ...egunero egunkari berezi eta desberdin bat zuretzat


ASTEAZKENERO:



OSTEGUNERO:



OSTIRALERO:



LARUNBATERO:



IGANDERO:



Egunero Bizkaian. Bizkaiko berriak bizkaieraz biltzen dituen gehigarria.

Bizkaia

Ostiralero Nafarroan. Nafarroako albisteak biltzen dituen gehigarria.

Nafarkaria

Egin zaitez harpidedun eta... **Kalitatezko zerbitzuaz gozatu!!**

1. Banaketa zerbitzu eraginkorra

Goizeko 08:00ak aurretik jasoko duzu EGUNKARIA etxean, lantokian, kioskoan...

2. Harpidedunaren txokoa

Antzerki, kontzertu edo zinemarako **sarrerak; afariak; egonaldiak; liburuak; diskoak... DOAN!**

3. Promozioetan abantailak

EGUNKARIAk kaleratzen dituen musika bildumak, liburuak eta bestelako **eskaintzak merkeago.**

4. Bezeroari arreta

Gurekin harremanetan jartzeko telefono bat duzu eskura: **902 300 223**
harpidetza@egunkaria.com

Egunkaria

datue

47

txirrindularik —Lagun Onak Txirrindulari Taldekoak denak— hartu dute parte aurten Sabiñanigo-Sabiñanigo proban. Horregatik, probaren antolatzaileek, Edelweiss Txirrindulari Taldeak, garaikur bat eman zion Azpeitiko taldeari, Lagun Onak izan zelako probara taldekide gehien eman zuen txirrindulari elkarteak.

esaldiye

“Martin Ugalde Kultur Parkean euskal kultur mundua indartzeko urrats sendoak egingo dira”

Joxe Mari Sors
(Euskalgintza Elkarlanean Fundaziokoa)

esaerie

“Uztailean gariak ebaki, horrek zer poz duen nekazariak daki”

liburutik ttak

“Euskal idazleontzat oso liburu ezaguna da Aita Agustin Kardaberazen *Eusqueraren berri onac* (1761). Lehen kapituluak, ‘euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du’ esaldi aipatu hura azaldu zuena. Bigarreanean ordea, ideia jakingarriak eskaintzen zituen euskararen hizkerari buruz; baina hirugarrena izan zait beti hunkigarriena, nahiz eta euskaldunon zoritxarrez han aipatu, nik dakidanez, euskaraz mintzatzen ziren haurrak eraztunez zigortzearen usadioa zehaztasun osoan”.

‘Euskararen ostarteak’. Juan San Martin. Erein argitaletxea. 1998. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



KANPAIAK HERRITARREI DEIKA

Irurgiko lurraldeko eliza eta ermitetako kanpaiak egingo zituzten elizkizunetarako deialdiak, batzuetan alaitasuna sortuz biztanleen artean eta askotan, berriz, bihotzak ukituz albiste tristeak zabaltzean. Herria sortzean, parroko kanpaiak bihurtuko ziren, herritarren bizitzaren adierazgarri, beraien eginkizuna zabalduz, elizkizunak ez ezik beste zenbait une garrantzitsuren berri jakinaraziz eta beraien artean Herri Batzar Nagusiak ospatzeko deialdiak edo sute handi batek beldurturik guztien laguntza eskatzeko, gerrarako prestaketak egiteko ere beraien negarra zabalduz. Herriak 1552an osatu zituen Ordenantzatan agertzen da garbi nolako garrantzia zuen kanpaiaren deialdiak, 200 maraiko isuna ezartzen zitzaion 18tik 60 urte arteko gizaseme bakoitzari deiarri erantzun gabe gelditzean.

Urteak igarotzean, herriak dorrea altxatu zuen sarrera nagusiaren inguruan eta kanpai bat jarriko zuen bertan, sarritan egin behar izaten zituen deialdiak egiteko; parrokoak bakarrik elizkizunak eta deialdi bereziak egiteko utzirik.

Gaur egun elizkizun berezietan iristen zaigu kanpaien zarata paregabea. Saninazioetan, parroko kanpaiak batetik, Loiolakoak bestetik, haiei jarraituz zenbait komentutakoak...

Azpeitiarrok betidanik izan garaela uste dut edozer gauzari punta ateratzeko gai, eta kanpaiak direla eta ez direla, haiekin ere zerbaite lortu behar. Lagun bati entzun diot azkenaldian, parroko kanpai handiak hasten direla orain “larrutan, larrutan, larrutan...” deitzen etengabeko letanian, Loiolako txikiagoek galdetuz interesaturik “non?, non?, non?...” azkenik komentatuko txiki, alai eta poxpolinak eran-

garai bateko Azpeitiye ...Lorenzo Aranburuk kontatua

Lehengo lan kontuak

Baserrian edo tailerrean ere lan egin behar eta lan baldintza hobeak aldarrikatuz grebak ere egiten ziren garai batean

Ion Aranburu

Baserrian lana egiteaz gainera, tailerrean ere egiten zuten lana gure aiton-amonek. Hala kontatzen du Lorenzo Aranburuk. “Nik Amuko batxilerra 17 urterekin utzi nuen. Lehengo Marcial Ucinen hasi nintzen lanean, soldeaketan”. Garai hartan, Marcial Ucin ez zen gaur egun bezain enpresa handia eta gogoan du nola nagusiarekin Bilbora joaten zen lanerako materialaren bila. “Martxialekin hiru bat aldiz joan nintzen burdinezko xaflak hautatzera. Materiala Azpeitira ekartzen genuen, hemen soldeatu eta konponketak egindakoan bertan saltzen zen”.

Hango lana utzi eta berriz ere baserrian ekin zion lanari. “Beranduago Belokinean hasi nintzen lanean”. Hango zerra makina desberdinak ere gogoan ditu, eta herriko enpresa txiki-txiki asko bertara joaten ziren lanean. “Azpeitiko kalean enpresa txiki asko zego-

en, bi eta hiru langilekoak, eta askotan etortzen ziren Belokinera zerratzerak”. Askotan makinan lanean jarduteko txanda hartu behar izaten zutela dio Lorenzok.

KARLISTAREN TXAPELA. Karlista bati txapel gorria apurtu zionekoa ere gogoan du. “Goizeko bostetan sartu nintzen lanera. Lagun baten eta bion artean sagardo botila bat edatea nahi genuen. Garai hartan, enpresetan *pin-txea* egoten zen horrelako lanak egiten zituena, eta Enparan kaleko bati esan nion sagardo botila bat ekartzeko. Ezetz esan zidan. Nire aldamenetik pasatu zenean harrapatu nuen, txapel gorria kendu eta zerratik pasatu nion”. Orduan karlista baten txapela puskatzea kalte larria zen, jendea kartzelara joaten zen txapela lurrera botatzeagatik soilik”. Baina Lorenzo libratu egin zen, adin txikiak zelako artean.

Belokinako enpresa itxi zenean berriro baserri itzuli zen. “Belokinakoak behin baino



Parrokiko kanpandorrea. / MIGELITO SARRALLE (AZPEITIA IRUDITAN LIBURUA)

● **ISUNA.** 1552an 200 maraiko isuna ezartzen zitzaion 18tik 60 urte arteko gizasemeei kanpaiaren deia erantzun gabe geldituz gero

tzunez gozoki "hemen, hemen, hemen...". Alderdi mikatza erakusten duen txistea da, baina imajinarioa behar da asmatzeko, zarata alaia hitz horiekin lotzeko. Gure imajinarioak ez du hainbesteko maila, eta entzuna jasotzea besterik ez dugu egin.



Damaso Azkue tailerra. / IMANOL ELIASEN ARTXIBATEGIA

“ Diktatura garaian ere lan baldintzak hobetzeko egiten ziren grebak ”

Lorenzo Aranburu



gehiagotan itxi zuen enpresa. Soldadutzatik itzuli nintzenen berriro ateak irekita zituen”.

Orduan ere egiten ziren joan den ekainaren 19ko grebaren antzekoak. “Orain bezalaxe lan baldintzak hobetzeko eskatuz izaten ziren”. Tailerretan berehala jakiten zen enpresaren bat greba egitekoa zela. “Tailerreko norbaitek zabaltzen zuen enpresaren batek irten egin zuela greba egitera eta orduan besteok ere irten egiten genuen. Baina behin baino gehiagotan gertatu zen langileren bat kalean enkarguren bat egiten egotea eta greban zeudela pentsatzea”. Greba asko egin ziren Francoren diktaturaren amaiera aldera. “Azkenerako, lanera joan eta ez genuen laneko arropa zaharrik ere janzen; joan eta berriro bueltatzeko ez zuen merezi. Orduan greba bolada izugarria izan zen. Harrezkero, jendeak kontu handiagoa izaten du grebak egiterakoan”.

xapo euskerie

Aitor Arruti

Arantzazu Azpillaga
(itzultzaileak)

EUSKALKIAN

BETI: BAI

ALA EZ? (II)

Xabier Kintanak euskalkien erabilerari buruz azaldu duen iritziazen laburpena eskaini genizuen. Hura lehen zatia zen, eta hona hemen bigarrena:

- “Ondorioz, euskara batuak (...) orain, etxe barruan, bere barruko euskalkien kontra ere borrokatu beharra dauka. Euskara batuaren orde, bizkaiera landu eta zeregin literario, administratibo eta zientziakoetarako ere [prestatu nahi dute] batuari eremu horiek ere kentzeko”.

- “Bizkaieraren aldeko gurtzada sutsu honetan, gainera munduko inongo hizkuntzatan onartuko ez liratekeen gehiegikeriak egiten ari dira: bizkaitarrok euskara batuaren esandako gauzak bizkaierara itzultzea”.

- “Aspaldion euskarak aurrera egin badu, neurri handiz, euskara batuagatik izan da, eta hori ongisko dakite gure hizkuntzaren etsaiek. Horren kariaz, euskalki benegarriak, berez edo diru-truke, aupatu guran dabiltzanek joko nori egiten dioten hobeki pentsatu beharko lukete”.

- “Bestalde, euskara batuari erantsi nahi zaion artifizial kutsu horrek (...) mesede baino kalte handiagoa egiten du (...) euskaldun berriak erdaraz egitera gonbidatzen dituelako, hainbeste nekez ikasi duten euskara baztertuz”.

- “(...) Mitxelenak argi eta garbi esan zuenez, euskara batuarekin euskara salbatuko dugula ezin ziurta dezakegun arren, euskalki-egoeran segituz gero, ordea, gauza seguru da euskara hilko zaigula”.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



ELIKADURA ETA AZALEKO ZENBAIT ARAZO (I)

Duela 250 urte hasi ziren gai honetaz zer-bait idazten; aurrenetako bat asturiar mediku bat izan zen: Gaspar Casal. Horrela, eskorbutuaz, pelagraz, beri-beriaz eta gaixotasun hauek bitamina faltarekin zuten zerikusiaz hitz egin zen.

Alor honetan nik benetako ezagupidea Zaragozako Medikuntza Fakultatean izan nuen, Oftalmologia Katedran hauritsu bat azaldu zenean. Ijito koskor bat zen. Miaketa kliniko egin ondoren, ez zuten ezer esanguratsurik aurkitu. Haurraren gurasoei zer jaten zuten galdetu zitzaizenean, jaiotzetik "ardo-zopak" ematen zizkiotela eta hori zela gehien gustatzen zitzaiona esan zuten. Pentsatuko duzue nolako harridura izan zuten medikuek, baina egia zen. Maila handieneko xeroftalmia eta hemelopia zituen A bitaminen gabeziagatik. A

bitaminaren dosi handiak eman zitzaizkion eta berehala berreskuratu zuen ikusmena.

Gure hesteak eta gibelak osasuntsuak baditugu eta barazki edo berdura asko jaten badugu, batez ere letxuga eta azenarioak, gaixotasun arriskurik ez dugu izango.

A Bitamina, konplexu bat da berez: zuhaitz bat bere adarrekin. Bitamina honen gabeziak azaleko aldaketak, idorreriak, indar eza eta erotasuna ere ekar dezakete. Egia da era askotako elikadura badugu, eta batez ere barazki eta fruta ugari jaten badugu, tratamendurik onena emango diogula.

- **BITAMINA FALTA.** Zenbait gaixotasunek bitamina faltarekin zerikusi estua dute

Informatika



INFORMATIKAKO ZIURTAGIRIA AZPEITIAN

Eusko Jaurlaritzak maitzean Informazio Teknologiaren Erabiltzailearen Ziurtagiria (IT Txartela) jarri zuen martxan. Txartela ateratzeko KZ Guneetan azterketak egiten hasi dira. Azpeitian ere Enparan Dorretxeko, Konekta Zaitzez Gunean hasi dira ziurtagiri hori lortzeko azterketak. Azterketa 16 urtetik gorako edozeinek egiteko aukera du. Uztailan (12an eta 19an, 10:00etatik 12:00etara), zazpi moduloko azterketak egin daitezke: Oinarrizko Internet Modulua, Internet Modulu Aurreratua, Sistema Operatiiboak, Testu Prozesadoreak, Kalkulu Orriak, Datu Baseak eta Aurkezpenak.

gertuko pasadizue

IRRATIAN BERTSOLARI GAZTEAK

- **JOXIN ITURRIOZ:** "Loiola Irratiko Bertsolari Gazteen Txapelketak antolatzen hasi ziren. 1962an izan zen lehenengoa (Txomin Garmendiak irabazi zuen). Garai hartan aukera gutxi zegoen gazteentzat, geroago hasi baitziren Zepai, Osinalde, Orixe, Lizardi eta antzeko sariketak (...). 1965eko uztailaren 22an Fraga Iribarnekin irratia itxi zuen, eta 1966an ezin izan zuten sariketarik antolatu, irratia oraindik itxita zegoelako".

'Urolaldea Bertsolari' liburutik hartua. Joxin Iturrioz. Argitaratzailea Ikasberri Azpeitiko Ikastola. 2001.



ORKATX KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalca, 24

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

Otamendi
Betsi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

HITZEIN
HITZEIN
HITZEIN

Izaskun Lizarralde

LOGOPEDIA

630 133 286 - 943 157 417
Urbilarte 3, auzunea 20730 AZPEITIA

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School

- HAURRENTZAKO KLASE BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK. HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA, CAMBRIDGE, TOEFL

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ezk.

Tel.: 943 81 65 03



Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzubia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzubia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitarte, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitarte, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969


Lelre Larrañaga / Nerea Uranga

Herriko lau ikastetxeek bat egitea erabaki dute —Iraurgi Batxilergoko Ikastetxeak, Jesusen Alabak Ikastetxeak, Betharram Ikastetxeak eta Milagrosa Ikastetxeak— eta irailean Iraurgi Ikastetxearen izenean hasiko dute ikasturtea. Aurtun bategite lan horretan aritu dira ikastetxeetako gurasoak, irakasleak, langileak eta zuzendaritzako kideak. Ikastetxeen Batzorde Titularrak hartu zuen hasiera batean erabakia, eta gero erakunde ezberdinen barruan gauzatzen joan da batu-kearako ibilbidea.

Iraurgi Ikastetxeak bi urtetik unibertsitatera arteko ikasleak hartuko ditu. 0-6 urte artekoak gaur egungo Milagrosan egongo dira, 6-12 urte artekoak egungo Betharrametan, eta besteak Iraurigin. Etorkizunean Heziketa Zikloak eskaintzeko amoa dute.

KRONOLOGIA. 1979an Iraurgi Batxilergoa sortu zenetik lankidetzarako hainbat pauso eman izan dituzte herriko ikastetxe erlijiosoek. 1992an lankidetzaren hitzarmena egin zuten herriko ikastetxe erlijiosoek eta Azkoitiko Salesiarrek. 1993an DBH emateari utzi zioten Milagrosak, Betharramdarrek eta Jesusen Alabak, eta ikasketa maila horien eskumena Iraurgi Ikastetxeari utzi zioten; ikasleak, inolako tramitazio berezirik egin gabe, Iraurgira pasatzen ziren (DBHko ikasketak Iraurigin jarraitzea erabakiz gero).

1999an Betharram Ikastetxe-ko titularitatea aldatu egin zen eta Donostiako Gotzaitegiaren esku gelditu zen. Bukatu berri den ikasturtean, berriz, ikastetxe erlijiosoek ikastetxe bakar bat izateko pausoak ematen hasi ziren, eta azkenean lortu dute laurak ere ikastetxe bakar batean biltzea. Hala, datorren ikasturtea, aurrenekoa izango da elkarrekin Iraurgi Ikastetxearen izenean hasiko dutena. Urte hauetako lankidetzaren emaitza izango da.



LAU IKASTETXE ERLIJIOSOAK, BAT

Herriko ikastetxe erlijiosoak ikastetxe bakarrean elkartuko dira: Iraurgi Ikastetxean. Eta datorren ikasturteari ikastetxe bakar bezala ekingo diote

«Adarrak indartzen joan beharrean, enborra indartu behar dugu»

Joxe Mari Arruabarrena 33 urtean Betharram Ikastetxean aritu da irakasle. Gaur egun zuzendaria da Betharrametan eta irailetik ikastetxe honek Iraurgi Ikastetxearen izenpean abiatuko du ikasturtea. Haren ustez, Iraurgi Ikastetxean herriko ikastetxe erlijiosoak batzea urteetako bilakaera baten emaitza da. Orain arteko prozesuaz, egoeraz eta aurrera begirako lanez mintzatu da Arruabarrena Uzta-riarekin.

● **Datorren ikasturtean ikastetxe bakar bat osatuko duzue egun lau ikastetxe zaretenak.**

Ez da oraingoa bat egitearen asmoa. Iraurgi Batxilergoa sortu zenean, Donostiako Gotzaiaren titularitatearekin eta Azpeitiko ikastetxe erlijiosoak tirtular-kide ginela, Setienek (orduan Donostiako gotzain zenak) antzeko asmoak zituen buruan. Eta garai hartatik nahiko gertutasuna egon da gure artean. Ikastetxeen arteko batasuna eboluzio baten ondorio da.

● **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean eskaera eginda al duzue?**

Dagoeneko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaritzan eskaera bat eginda dugu. Eusko Jaurlaritzako Aldizkari Ofizialean erabakia noiz aterako gaude eta irailean ikasturte berria bat eginda hasteko asmoan gaude, Iraurgi Ikastetxearen izenean.

● **Ikastetxe erlijiosoek nolako bilakaera izan dute sortu zirenetik?**

Sorreran, erlijiosoen familiak sortu zituzten ikastetxeak. Ikastetxeetako irakasleak ere erlijiosoak izan ohi ziren, apaizak edo monjak. Gaur egun, lau ikastetxe hauetan, bakarren bat kenduta, irakaslearen gehiengoa ez da apaiz edo monja, magisteritzako ikasketak egin dituenak dira gehiengoa. Ikastetxe

“Lau ikastetxeen arteko batasun hau, eboluzio baten ondorioa izan da, asmoa ez baita oraingoa”

erlijiosoetan ere garai batean neskak eta mutilak bananduta izan ohi ziren, baina gaur egun ikastetxe hauetan ikasleak bai neskak eta bai mutilak elkarrekin daude ikasgeletan.

● **Gizartearen sekularizazioak ere islarik izan al du orduan ikastetxe erlijiosoetan ere?**

Lehen, ikastetxearen sorreran eta lehen urteetan, erlijiosoek eraman izan zuten bandera hori beste batzuei egokitu zaigu hartzea eta aurrera eramatea.

● **Eta orain herriko ikastetxe erlijiosoek bat egitea nola ikusten duzu zeuk?**

Eliza bat bada, guk ere bat izan behar dugu, eta adarrak indartzen joan beharrean enborra indartu behar dugu. Hori da behintzat nire ikuspuntua.

● **Uneotan zertan ari zarete ikastetxeok?**

Bat egingo dugun ikastetxeetako irakasleak barruko lanetan ari gara: pedagogia arloan, hain zuzen ere. Aspaldian horretan ari gara, ikastetxeetako irakasleak, zuzendaritza eta abar, mailaka bildu eta ildo pedagogikoa lantzen. Lehenengo barruko lana, edukia landu beharko dugu.

● **Iraurgi Ikastetxeak datorren ikasturtea zenbat ikasle eta irakasleekin hasiko du?**

900-1.000 ikasle inguruk eta 80 irakasle eta langilek osatuko dugu Iraurgi Ikastetxea. ●

1. IRAURGI.

1979an sortu zen. Batxilergoko ikasketak ematen dira hasieratik. Bere titular nagusia Donostiako Gotzaitzia da eta titularkileak Betharram ikastetxea, Eskolabak, Jesusen Alabak Ikastetxea eta Karidadeko Amak. Gero, ikastetxeotako batxilerreko ikasleak hartu izan ditu.

2. JESUSEN ALABAK.

1924an gau-eskola zabaldu zuten. Gero Enparan kalean zuten ikastetxearen orde, berri bat sortu zuten Santutxon. Ikasturtea 1967an hasi zuten eraikin berria eta hor segitzen dute. Lehen neskak bakarrik ziren ikasleak; egun neskak eta mutilak.

3. MILAGROSA.

Karitateko Alabak herrira 1869an etorri ziren, Harzubi kaleko Miserikordi etxera. Eskolak ematen 1898an hasi ziren. Hainbat bertako haurrak baino ez zituzten ikasle (neska-mutilak), baina gerora herrikoak ere hartu zituzten. Beranduago neskak bakarrik eta azken urtetan neska-mutilak.

4. BETHARRAM.

1966an etorri ziren Betharram-arrak Azpeitira, Udalak Maristentzat egin zuen ikastetxera egungo eraikina Maristentzat egin zuen Udalak baina haiek ez zitoten ekin ikasturteari). Azkar prestatu eta ekin zioten garai hartan herriratu ziren betharramdarrek ikasturteari.

zuk ere eman ezazu albisteak, agenda, botoa, iritzia...; hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da

www.uztarria.com

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI

PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturririkiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kirodegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdia	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Egunkaria	943-30 02 22
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ - PNV	81 55 70
Batasuna	15 12 15
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkarte	[oraindik ez]
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek gauzez

UZTAILAK 1-6-7-18-30

Zulaika. 15 03 34

UZTAILAK 2-19-31

Aseginolaza. 81 13 50

UZTAILAK 3-15-20-21

Beristain. 81 19 49

UZTAILAK 4-16

Etxebeste. 81 59 74

UZTAILAK 5-17-29

Garcia. 81 12 74

UZTAILAK 8-14

Azpiazu (Azkoitia). 85 29 89

UZTAILAK 22-28

Jaen (Azkoitia). 85 06 60

gune publikuek irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30

Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00

Beste astegunak: 7:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Igandeak: 9:00-13:00

Kanpokoa: 11:00-20:00

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00

Beste astegunak: 15:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegirik

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30

Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:35, 13:30

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:55

Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Pesa	21 26 99
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkarte	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

BILBO-EIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00

Enpresa: Pesa

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 14:00, 20:00

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55

Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45

Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00

Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitela)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30

Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45

Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30

Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00

Enpresa: EuskoTren

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

- 2.2. Erosi
- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskatera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDAIK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

- **Eliz kalea.** Eraikitzearen dauden etxebizitzak. Egongela, bi-hiru logela, sukaldaria, jangela, bi bainugela eta traste lekua. Telefono zenbakiak: 943 - 89 40 84 edo 636 97 43 20.
- **Soreasu.** Hiru logela, bainugela, egongela eta traste lekua. Oso eguzkitsua. Salneurria: 81.337 euro (13.500.000 pezeta). Telefono zenbakiak: 943 - 15 12 85 edo 943 - 81 22 99.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

- **Plaza Nagusia.** Lehen pisua. Telefonoa: 943 - 46 29 31.
- **Urbitate.** Telefonoa: 609 37 87 31.
- **Erdi kalea.** Telefonoa: 943 - 81 49 87.

2.3. ERRENTAN EMAN

- **Olazko Amaren Plaza.** Telefonoa: 943 - 15 08 72 edo 666 52 59 45.
- **Iñaki Azpiazu kalea.** Tele-

fonoak: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.

• **Enparantza Nagusia.** Lehen pisua, arkupean. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

• **Landeta.** Asepeyo-ren ondoan. Telefonoak: 943 - 81 17 59 edo 943 - 81 19 58.

• **Landeta.** Telefonoa: 943 - 81 10 77.

• **Juan XXIII.a.** 7. zenbakian. Telefonoak: 943 - 81 22 85 edo 943 - 81 28 97.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

- **Arana Goikoa.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 58 10 42.
- **Santutxo.** 10. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 07 29.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

- **Injineru elektronikoa.** Azkoitian. Sei hilabeteko kontratua. Eskatzen da: goi mailako teknikoa izatea, 45 urte baino gutxiago izatea eta urte bateko esperientzia izate-

tea, eta Azkoitian edo inguruan bizitzea. 81723/4 eskaintza. www.lanbide.net.

• **Sukaldari laguntzailea.** Azpeitian erretegi sukaldaria laguntzeko emakume bat behar da. Telefono zenbakiak: 647 - 65 36 75.

• **Sukaldaria.** Bidanien jatetxerako sukaldaria behar da. Telefonoa: 605 70 12 04.

• **Zaindaria.** Urolako bailaran enpresatik gertu dagoen etxe bat zaintzeko bikote bat behar da. Telefono zenbakiak: 943 - 32 78 23 (Jone).

5. MOTORRA

5.1. SALDU

- **Motoa.** Kawasaki GTX 600R. Egoera onean. Telefonoak: 943 - 76 64 01 edo 605 71 24 73.
- **Motoa.** Montesa Cola 315. 1999. urtekoa. Egoera onean. Telefonoak: 943 - 76 64 01 edo 605 71 24 73.
- **Autoa.** Opel Corsa. Prezioa: 902 euro (150.000 pezeta). Telefonoa: 943 - 15 17 75.

• **Enpresen zuzendaritzan lizentziatua.** Enpresen Zuzendaritzan eta Administrazioan lizentziatua eskatzen da eta euskara menperatzea. 0122375 eskaintza. www.lanbide.net

• **Udan klaseak.** Uda garaian klaseak ematen dira, ingelera eta oporretako lanak egiteko laguntza. Telefonoak: 943 - 81 37 18 edo 943 - 65 14 47.

7. DENETARIK

7.1. SALDU

- **Pianoa.** Ormakoa. Modu onean. Telefonoa: 652 76 15 52. Iñaki.
- **Pabilioiak.** Industrialak. Neurri ezberdinetakoak. Telefonoa: 943-81 41 00.

7.2. EROSI

- **Egurra.** Botatoko egurra, aritza, gaztaina, pinua, ohol zaharra eta urritza enborkak erosiko nituzke. Telefonoak: 943 - 81 34 74 edo 943 - 81 45 70.

- **Txanponak.** Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Telefonoa: 639 82 27 90. Pello.

- **Kasetea.** Autorako musika kasetea erosiko nuke, prezio eta egoera onean dagoena. Telefonoa: 946 - 71 02 04. (Arritxu).

7.5. BESTELAKOAK

- **Klasepartikularrak.** D.B.H., lehen hezkuntza eta alor guztietako klaseak ematen dira. Informazio gehiagorako telefonoak honoak dira: 943 - 81 63 97 edo 657 77 74 24.

TABERNA



Telfnoa.: 943 151086
Enparantza Nagusia

ODRIOZOLA ARDOAK




Julio Urquijo, 18
Tfnoa.: 85 00 11
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa.: 15 13 16
AZPEITIA



Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es



- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURUOK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Egin publizitatea



uztarria

argazkilaye: Uztarria

San Joanetako lizarraren usadioa

● **SAN JOANAK.** San Joan jaiek usadio ugari gordetzen dute bere baitan; batzuk berpizten ari dira urtez urte eta beste batzuk indarra galtzen. Ezagunena San Joan sua da, baina gero eta su gutxiago ikusten da herrian. Lorak bedeinkatzearena berpizten ari da, eta lizarraren usadioa ezaguna da Urrestillan.

● **LIZARRAREN USADIOA.** Urrestildarrek San Joan bezperan lizar adarrak moztu eta San Joan egunerako etxe atarian eta leihoetan jartzen dituzte Santiagoak arte. Urrestilla da lizarra eskuz altxatzen den leku bakarrenetakoa; utikan, beraz, garabia. Aurten Matxinbentako baso batetik ekarri dute lizarra.



5



1. ETXekoAK.

Etxe balkoi eta leihoetan jarriko diren lizarrak arratsalderako etxean dira.

2. LUZE-LUZE.

Arratsaldean lizarra Urrestillako sarreran, gauerako prest zen. Luze-luze bide bazterrean. 22 metrokoa.

3. KALEJIRAN.

Afalondoan, lizarra sorbaldan hartu eta Urrestillako kaleetan barrena kalejiran.

4. TRIKITILARIAK.

Bidea irekitzen soinua eta panderoa, animoak igotzeko musikaren faltarik ez mutilek.

5. OINA.

Plazan lizarra lurrean, muturra zorrotzen. Aizkorakada han eta hemen, lizarraren oinarria prestatzen.

6. BURUA.


Lizarraren beste muturra apaintzeko ikurrina.

7. BULTZAKA.

Denak batera bultza eta tiraka, indarrak batuz, laster da lizarra zuzen-zuzen.



6



7



8. ALTXATZEN.


Gizaseme koadrila eta eskilarak, sokak eta barandila, denak behar 22 metrotako lizarra plazan zutik tente jartzeko.

9. IA ERORIAN.

Datorren urterako zuhaitz motzagoa ekarri nahi duenik ere izango da, ihes egin eta ia lurrera erori zelako zuhaitza, argazkiko uneak jasotzen duen bezala.

10. TENTE.

San Joan egunean, meza nagusi irteeran, zuhaitza plaza erdian tente zen.





GAUA GAU?

Den onena izanda ere, gaua gau (esaera zaharra). Uda ate joka dugu. Eta uda argia da. Argia eta hondartza gainezkatuak eta beroak eta parrandak. Baina argia nahi nuen gaur hizpide.

Sarritan ezkondu izan dugu argia ongiarekin. Horixe dugu kristau tradizio erraldoia: Jainkoa da argia —“Jainkoaren Jainko, Argiaren Argi”, zioen Nizeako kontzilioak—; bestea, *arerioa*, itzala eta gaua da: iluntasuna. Mitologian, nola ez, baditu argiak hainbat eta hainbat jainko eta gurtza: Eguzki amandrea, euskal mitologian; Helios, Amaterasu, Amon-Ra, Huitzilopochtli... beste zenbaitetan. Eguzkia eta argia beti. Opari hobezina balitz bezala.

Mitologiak mitologia, ezinezkoa zaigu ukatzea argiak ikaragarrizko eragina duela gudan. Hor dago, baita ere, estatistika mordoa aldarrikatzen zenbat eta eguzki-ordu gehiago, orduan eta arinagoak direla depresioak: Europako ganbara aldean —egun ilunagoak dituzten eta ia izotza besterik ez dagoen goiko eremu horietan— tristeagoa omen da jendea. Etsikorragoa. Ez dakit nik, barre ederrekin ikusten baititut haiek askotan, eta ezin muturbeltzago hemengo asko. Baina tira, estatistikak dio eta isildu egin behar.

Argia maite dugu eta argiz kutsatu nahi dugu bizitza. Baina laster konturatzen gara zuria ez dela beti zuri, beltza ez dela beti beltz, eta argian ez dela dena argi. Argiak itzala bai baitu. Baina gu, *homo sapiens* ustean, izaki pendularrak gara, eta zaila zaigu erdibidea jarraitzea. Zaila zaigu eta gainera ez dugu nahi. Daltonismo madarikatu batek jota bezala gaude. Tarteko tonuak ederrak izan daitezkeela onartu ez eta iluntasunak beldurtu egiten gaituen aitzakiarekin farolez josi nahi ditugu txoko guztiak. Gaua existituko ez balitz bezala. Existitu beharko ez balu bezala.

Gaitz unibertsala da, tamalez edo zorionez. Begiratu, adibidez, Zumaiako dikea gauez. Oso polita ditxosozko argi horiekin eta nahi den guztia. Baina ez dago kristorik han gauez lasai pasea dezakeenik. Fokoak lurrean daude eta gorantz egiten dute, zuzen-zuzenean aurpegirantz. Ematen duten beroa albo batera utzita, argiak bete-betean harrapatu eta itsu-itsu eginda uzten zaitu. Eta, gutxi balitz bezala, ez dira urri eltxoak, gu bezala, argia gurtzen dutenak. Itsututa eta eltxoak saihesten: errezeta aproposena nahi gabeko bainua hartzeko ur haietan. Eskerrak olatuen soinua behintzat baregarria den...

ESAERA.
Eguzkiak
daukan
onena, itzala

Zumairaino joan naiz, baina etxean ere badugu nahiko adibide. Enparan dorretxean, adibidez, beste hainbeste gertatzen da: fokoak lurrean daude eta oso polita geratzen da eraikina, argi-argia eta postal batean sartzeko moduan. Baina fokoak bete-betean harrapatzen zaituenean ezin hura miretsi, eta are gutxiago eltxoak zurekin dantzan hasiz gero.

Eta Loiolako Santutegia? Demontre, han ez dago jadanik gaurik. 10.000 farol horiek jarri zituztenetik ezin *deabrurik* hurbildu San Inazioaren etxe ingurura. Ezin eremu haietan bekatuak egin! Leku santuek ez al dute santutasuna galtzen bekatuak gabe?

Eguna argia den moduan, gauak ez al luke, hein batean behintzat, gau behar? Oreka hutsagatik bada ere, ño. Zesarri zesarrena eta gauari iluntasun apur bat. Argiak sekretu gutxi du: gaurik gabe, misteriorik ez. Zer geratzen zaigu orduan?



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

UZTAILAK 1 (astelehena)

ERAKUSKETA.

Urolako Arte eta Diseinu Ikas-
tegiako ikasleen arte lanen
erakusketa. Uztailaren 21a
arte irekita izango da. Astele-
henetik ostiralera 16:00etatik
20:00etarako ordutegian. An-
txieta Etxean.

UZTAILAK 5 (ostirala)

MANIFESTAZIOA.

Presoen eskubideen defen-
tsan lelopean manifestazioa
egingo da. 19:30ean. Plazatik
irtenda.

UZTAILAK 6 (larunbata)

ERAKUSKETA.

Euskadiko XX. Euskal An-
tzerki Topaketetako kartel
lehiaketara aurkeztutako kar-
telen erakusketa. Udaleko
Kultura Batzordeak antolatu-
ta. 28 lan izango dira erakus-
gai, uztailaren 14a arte. Be-
tharrametako beheko solai-
ruan. Astelehenetik ostiralera
18:00etatik 20:00etara eta la-
raunbata eta igandetan
12:00etatik 14:00etara.

DANTZA.

Itsasi Dantza Taldearen 25.
urteurreneko ekitaldia. Azpei-

Azpeitia Hiria X. Rallya 20an da, eta ez da Urrakitik pasatuko

• **EKITALDIA:** Azpeitia Hiria X. Rallya • **EGUNA:** Uztailak 20 (larunbata) • **ORDUA:** 16:00etan hasiko da eta 00:00ak aldera bukatu • **TOKIA:** Epaitegi aurrean hasiko da • **ANTOLATZAILEA:** Lagun Artea Eskuderia

Nerea Aranburu / Aurten uztailaren 20an izango da Azpeitia Hiria X. Rallya eta hainbat aldaketa izango ditu, eta horietan garrantzitsuena rallya aurten Urrakitik ez dela pasatuko da. Lagun Artea Eskuderia antolatzaileak Uztarriari esan dionez, "azkena egin zen rallyan, Ikasberriko rally sprintean, ikusleek jarrera txarra eta errespetu falta erakutsi zuten eta hori da aurtengo aldaketaren arrazoia". Lagun Artearen ustez, "horrelako jarrera erakusten duen jendeak kalte egiten die benetako zaleei".

Beraz, ibilbide aldaketa egongo da lasterketan. Urrakiko zatiaren ordez, Aizarnatik igaro beharko dute gidariek. Edizio honetako bideak bi atal izango ditu: Nuarbe-Beizama bata eta Aizarna bestea.

Laguntza tokiarena da lasterketak izango duen beste aldaketa. Auto gidariek, laguntza teknikorako toki bat izango dute: Landetan, Pemec lantegia dagoen inguruan.

Rallyari arratsaldeko lauretan emango zaio hasiera, epaitegi aurretik. Ondoren hamar minutuko laguntza teknikorako denbora egongo da Landetan, eta 16:25etan hasiko da lasterketaren lehendabiziko zatia: Nuarbe-Beizama. Lehen autoa atzera epaitegi aurrera 23:30ak aldera iritsiko dela espero da. Sari banaketa 00:30ean egingo da.

Lasterketan 80-90 autok parte hartuko dutela uste dute antolatzaileek, eta horien artean izen garrantzitsuak egongo direla: Santi Artetxe Seat Cordoba EVO III berriarekin, Iñaki Alberdi Renault Megane Maxi Kit Car-arekin, Jon Agirre, Xabier Lasa, Ramon Apalantza, Jon Arregi *Lopene* eta Jose Ramon Aller besteak beste.

Lasterketan parte hartu nahi dutenentzat izena emateko epea uztailaren 15ean bukatuko da. Eta izen-ematearen kostoa 150 eurokoa da.

tia Dantzan 2002ko egita-
rauaren barruan. 22:30ean.
Izarraitz pilotalekuan.

UZTAILAK 7 (igandea)

MENDIA.

Azpeitia- Arantzazu egun
guztirako mendi ibilaldia. La-
gun Onak Mendi Bazkunak
antolatuta. Irteera plazatik
00:00etan.

ERROMESALDIA.

Urteroko Arantzazurako erro-
mesaldia. Irteera autobusez
plazatik. 09:00etan.

UZTAILAK 12 (ostirala)

KZ GUNEA.

Informazio Teknologien Era-
biltzailearen Ziurtagirako az-
terketa, IT Txartela ateratze-
ko. 10:00etatik 12:00etara.
Azpeitiko KZ Gunean, Enpa-
ran Dorretxean.

UZTAILAK 13 (larunbata)

AITONENA.

Xoxoteko eguna antolatu du-
te Aitonena Batzordekoek.
Txartelak salgai daude Aito-
nena 1eko zuzendaritzaren
bulegoan, lehen pisuan.
10:30tik 12:30etara bitarte-
an.


DANTZA.

Aurkeran Dantza Elkarteak
Sutargi obra aurkeztuko du.



KIRURI
J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62



SOGU - MARGAR

estetikako
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker
gracias a ti


Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatua aukera handia



URBISTONDO
MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



UZTAILAK 20 (larunbata)

● MENDIA.

Picos de Europa bi egunetarako irteera, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Aurrez izena eman behar da Lagun Onak-en egoitzan.

● AURKEZPENEA.

Iraurgi Saskibaloi Elkartearen liburuaren aurkezpena, 25. urteurrena dela eta.

● DANTZA.

Kolonbiako Ekobios Dantza Taldearen eta Filipinetako Karangahan Dantza Elkartearen ekitaldiak. Azpeitia Dantzan 2002. 22:30ean. Izarraitz Pilotalekuan.

UZTAILAK 24 (asteazkena)

● DANTZA.

Buruatiako (Mongolia) Badma Seseg Dantza Taldearen eta Peruko Identidad Peru Dantza Taldearen ekitaldiak. Azpeitia Dantzan 2002. 22:30ean. Plazan.

UZTAILAK 25 (osteguna)

● SASKIBALOIA.

Iraurgi Saskibaloi Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko bazkaria. Loiola Hotelean.

Azpeitia Dantzan 2002ko egitarauaren barne izango da. 22:30ean. Izarraitz Pilotalekuan.

la 240,40 eurokoa da (40.000 pezeta). Informazioa Tren Museoa.

ak antolatu du, aurrera eramaten ari den kontzientziazio knapainaren barruan. 20:00etan. Aitoneno aretoan.

UZTAILAK 16 (asteartea)

UZTAILAK 17 (asteazkena)

UZTAILAK 19 (ostirala)

● TREN MUSEOA.

Lurrin Trakzioaren hastape nei buruzko VII. ikastaroa. Uztailaren 21a arte bitartean izango da. Gehienez zortzi ikasle onartuko dira. Matriku-

● HITZALDIA.

Euskaraz dibertitzeko manerak gaiaren inguruko hitzaldia emango dute Kike Amonariz soziolinguistak eta Antton Olariaga marrazkilariak. Azpeitiko Baite Euskara Elkartearak antolatu du, aurrera eramaten ari den kontzientziazio knapainaren barruan. 20:00etan. Aitoneno aretoan.

● KZ GUNEA.

Informazio Teknologien Erabilzailearen Ziurtagirako azterketa. 10:00etatik 12:00etara. Azpeitiko KZ Gunean, Enparan Dorretxean.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com

UROLA IKASTOLA AZKOITIA - AZPEITIA BHI

AZKOITIAN ALTAMIRA AUZOAN ETA AZPEITIAN PERDILLEGIN:

● Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Merkataritza
- Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialak
- Mekanika

● Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Administrazio eta finantzak
- Zur eta altzari produktzioa
- Mekanizazio bidezko produktzioa
- Informatika sistemen administrazioa

● Batxilergoak

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

● MATRIKULAZIOA

Uztailaren 1etik 5era (biak barne)

EPEALDI BEREZIA

Goi Mailako Heziketa Zikloak

Uztailaren 22tik 24ra (biak barne)

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdillegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 37 70 Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



www.urola.hezitek.net



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA


Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

Mikel Garmendia

Mixiolari Swazilandian

Manziniri begiratue



- Swazilandian dao, erdialdien.
- Mbabane da hango hiriburue.
- Manzini da bigarren hiri haundiyena da: 20.000 biztanle ditu.
- Bi hizkuntza ofizial dituzte: siSwati eta inglesa.
- Gehyenak nekazayek die, baño industriye indartzen ai da.
- Erijiyue: protestante-ebanjelikuek.

“20 urte Afrikan ein da bertakue zea, baño nere kulturie hor dao”



Hogei urte die Mikel Garmendia Afrika jun zala mixiolari, 28 urtekin eta apaiz ein berriye. Lehenengo bost urte Benin-en ein zitun, eta gero Manzinire jun zan hiru urteako; 16 damazki.

• Afrika jun aurretik beste nunbait izan al zinen?

Aurretik ez nintzen sekule Euskal Herri maitetik kanpoa ibili. Behin'e ez nun pentsau Afrika edo inoare etortzie, baño 1981ien salesianuek presentzi berriyek irikitzen hasi ginen Afrikan, eta Probintzialak galdeu zienien bi aldiz pentsau gabe baietz esan eta ez naiz damutu.

• Horrea ze lan eitekotan jun zinen?

Swazilandia irakasle bezela lan eitea etorri nitzen. Salesian High School-en eiten det lan. Mozambique onduen gaudenez, portugese eta Mozambiqueko mordoakie dauzkeu eta haien kargu nao kapellau. Musikie're erakusten det. Nere klasiak (pianue eta solfeue) Londreseko Royal Schools of Music-erako azterketak prestatzeko die.

• Hor zu al zea euskaldun bakarra?

Bai. Jendiek galdetzen ditienien “Are you a *spaniard*?”, nik bela erantzuten diyebet “No ways, I'm a *basque*” eta hayek “Ah! *terrorist*? *ETA*?”, parre pixket ein ta danak gustoa. Nire gelan ikurrin ear bat, zabal-zabalik hor dauket.

• Nolakue da eguneroko bizitzie hor?

Eskolan ai naiz denbora geyena eta nire biziye osue arautute dao. 05:30ten jai-ki, kapillan meditaziyue eta mezie, geo gosaye. 07:30ten eskola, 15:30yek arte. Geo, musika klasiak. 18:00tan, inglesak bezela, afaye. Arratsaldeko otoitza, eta denbora librie. 22:30ten, lota. Aste bukaeratan, Gazte Zentruen, katekesis, mezak inglezese eta portugueseze... aspertzeko denborarik ez.

• Ze botatzen dezu faltan Euskal Herri- tik eta Azpeititik?

20 urte Afrikan bizita, Afrikakue bihurtzen zea. Baño Euskal Herriye, Azpeitiye, zure kulturie beti zurekin eoten da. Euskerazko kantuek jartzen ditutenien, malko batzuk erteten zaizkit eta oroitzapen earrak etortzen zaizkit...

Derea Uranga

HANGO JENDIE. “Hemengo jendie bi munduten sartute dao: beayen tradiziyuen eta kulturien, eta gaur egungo kulture modernuen”

ZATOZ GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA



GAZTAINONDO, GEREZIZKO ETA HARITZEZKO ALTZARIAK



fabrikako prezioetan zure etxera
finantzaketa 36 hilabetera



udaberri-uda 2002

Santi Lazkano Kirola



Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



Denen merke-merke

Babes
gazte moda

amanduak auzuen gaxauden!

Urbitarte, 9 ♦ Tel. 943 15130